


KODE ALTERNANTZIA



LAGUNARTEKO GAZTE HIZKERAN

ZALDIBIA ETA ORDIZIAKO KASUAK

Hizkuntza Plangintza ikastaroa
Sakontze egitasmoa

Karmele Etxabe Azkarate

Tutorea: Kike Amonarriz



Eskerrik asko Kikeri bidegurutzeetan laguntzeagatik.

Amaiari txukunketa lan guztiengatik.

Amaiari eta Larraitzi beraien lanak musu-truk uzteagatik.

Janire, Josune, Ane, Katrin, Maddi, Josu, Garazi, Irupe eta Maitaneri, kontuak oparitzeagatik.

**AURKIBIDEA**

1. Sarrera	4
1.1. Lanaren abiapuntua.....	4
1.2. Lanaren helburuak.....	4
1.3. Laburpena	4
2. Hurbilpen teorikoa	6
2.1. Hizkuntza-ukipena, hizkuntza-aldaketa eta hizkuntza-heriotza	6
2.2. Zer da kode alternantzia?.....	8
2.3. Zergatik gertatzen da?.....	11
2.4. Alternantzia mailak	14
2.4.1. Makulu-aldaketak	14
2.4.2. Perpausen arteko aldaketak.....	14
2.4.3. Perpau barruko aldaketak	14
2.5. Zer da gazte hizkera? Nolakoa da?.....	15
2.6. Zertarako da kode alternantzia lagunarteko gazte hizkeran?.....	16
2.7. Nolakoa da Euskal Herriko gazte hizkera?.....	19
2.8. Lan honetarako hipotesiak	23
3. Gazteen diskurtsoaren azterketa	24
3.1. Hiztunak.....	24
3.1.1. Zaldibia	24
3.1.2. Ordizia	25
3.2. Metodologia	26
3.3. Herrien hizkuntza-ezaugarriak.....	27
3.4. Transkribapen irizpideak	29
3.4.1. Forma	29
3.4.2. Bestelakoak.....	29
3.5. Ahozko jardunaren azterketa.....	30
3.5.1. Interjekzioak	30
3.5.2. Diskurtsoa antolatzeke partikulak.....	31
3.5.3. Irain eta biraoak.....	31
3.5.4. Morfosintaxia	31
3.5.5. Gramatika-kasuak	33
3.5.6. Aditza.....	33
3.5.7. Lexikoa	34
3.5.8. Hitz ordena eta prosodia	36
3.5.9. Fonetika.....	36
3.6. Idatzizko jardunaren azterketa	37
3.6.1. Nolakoa da gazteen euskarazko lagunarteko idazkera?	37
3.6.2. Zaldibiako eta Ordiziako gazteen lagunarteko idazkera	38
3.7. Herrien arteko alderaketa	40
4. Ondorioak	41
5. Corpora eta hura jasotzeko txantiloak	43
5.1. Pasarteak	43
5.1.1. Zaldibia	43
5.1.2. Ordizia	46
5.2. Hiztunaren fitxa.....	49
5.3. Galdetegi ereduak	50
6. Bibliografia	51
7. Eranskinak	54
7.1. Hizkuntzari buruzko galderak (Zaldibia)	54
7.2. Hizkuntzari buruzko galderak (Ordizia)	55



1. SARRERA

1.1. LANAREN ABIAPUNTUA

Gizarte elebidunetan, oso ohikoa da aukeran dauden bi hizkuntzak nahastea; hau da, pertsona batek bi hizkuntza ezagutzen ditunean, bi hizkuntza horietako zenbait ezaugarri eta egitura nahasian ager daitezke bere jardunean. *Kode-alternantzia* deitzen zaio horri (*code-switching*), eta ez da berria soziolinguistikan dabilzan ikertzaileen artean.

Gure gizarte elebidunean ere gertatzen dela, jakin, badakigu, baina noiz, nola, ze neurritan... gertatzen den jakiteko interesa da lan honen abiapuntua. Zertan da kode alternantzia 2010ean Euskal Herriko bi herri euskaldunetako gaztetxoaren artean? Horra erantzutea gustatuko litzaigukeen galdera.

1.2. LANAREN HELBURUAK

Lan honen helburu orokorra, aurretik esan bezala, kode-alternantziak Euskal Herriko bizpahiru herritako gazteengan duen eragina aztertzea da.

Helburu zehatzagoei erreparatzen badiegu azterketa hori janzteko eta hobeto ulertzeko oinarri teorikoak jartzea da haietako bat. Bestetik, gazte horien lagunarteko ahozko nahiz idatzizko diskurtsoan alternantzia-mailak, eraginpean dauden eremuak (lexikoa, sintaxia, morfologia...), maiztasuna eta abar deskribatzea. Eta hirugarrenik herrien artean alderik ba al dagoen aztertzea, egoera soziolinguistikoa ezberdina baita

Gustatuko litzaiguke, era berean, kode-alternantzia gaztelaniarekin bakarrik gertatzen ote den aztertzea, begi bistakoa baita ingelesak geroz eta toki handiagoa betetzen duela.

1.3. LABURPENA

Lan honek XXI. mende hasiera honetan lagunarteko gazte hizkera zertan den azertu nahi du. Aztergai hori mugatu egin dugu, dena dela, eta bi herri euskaldunetako gaztetxoengan kode alternantziak ze leku duen deskribatzen saiatuko gara.

Aurrez, ordea, kode alternantziak orain arte adituek esandakoak bildu ditugu. Kode alternantzia zer den, zergatik gertatzen den, zertarako, zer islatzen duen, hizkuntzaren ze mailatan eta kategoriatan gertatzen den. Adituek azalpen bat baino gehiago eman dizkiote hizkuntzak ukipenean daudenean gertatzen den fenomeno honi.



Horren ondoren dator ikerketa bera. Hemezortzi urte inguruko Zaldibiako eta Ordiziako gaztetxoaren ingurune soziolinguistikoaren eta egindako grabaketetan jasotako korpusaren azterketa. Orobat, lagunarteko idatzizko korpusa ere aztertuko dugu: sakelako telefonoko mezuak, emailak eta txatetako mezuak. Saiatuko gara kode alternantzia ze ingurunetan gertatzen den zehazten, ze funtzio betetzen dituen, zergatik gertatzen den. Bi herrietako jardunak aztertu ondoren haien arteko konparaketa egiten saiatuko gara. Aurreikus dezakegu Ordiziako gaztetxoaren hizkeran gaztelaniak toki handiagoa izango duela euskaraz ari direnean ere Zaldibiakoenean baino, baina xehetasunak aztertu ezean frogatzeko dago hipotesi hori.

Amaieran hitzunen datuak jasotzeko fitxa, grabaketarako gidoia eta lan hau egiteko erabili dugun bibliografia jasoko ditugu.



2. HURBILPEN TEORIKOA

2.1. HIZKUNTZA-UKIPENA, HIZKUNTZA-ALDAKETA ETA

HIZKUNTZA-HERIOTZA

Saussure hizkuntzalariak hizkuntzak aldatzea guztiz naturala dela zioen. Aldaketa hori nabarmenagoa da hizkuntzak ukipenean badaude. Hizkuntzak ukipenean egotea hauxe da Weinreich-en arabera: pertsona talde berak bi hizkuntza edo gehiago erabiltzea aldi berean, eta beraz, hiztun horiek dira ukipen puntua. (Weinreich 1996:29). Asko dira munduan beste hizkuntza bat(zu)ekiko etengabeko harremanean bizi diren hizkuntzak; hor ditugu, besteak beste, katalana eta galegoa gaztelaniarekin, Eskoziako gaelikoa (Dorian 1981) ingelesarekin, bretoiera (Kuter 1989) frantsesarekin, Australiako djirbalera eta warlpiriera (Schmidt 1985 eta Bavin 1989) ingelesarekin, Austriako hungariera (Gal 1979) alemanarekin, ingelesa frantsesarekin Kanadan, suomiera eta suediera Finlandian, eta, nola ez, euskara. Euskarak, jakina den bezala, gaztelania eta frantsesa ondo-ondoan ditu, eta biziki baldintzatzen du horrek haren egoera eta izaera.

Ukipenean egoteaz gain, heriotza bidean dauden hizkuntzak ere badira. Hizkuntza horietan aldaketa muturreraino iritsi da eta ordezkapen fasea burutzear da.

Aipaturiko hizkuntza horietan guztietan, erabatekoa izaten da hizkuntza-aldaketa; gehienetan, murrizketa eta galera garrantzitsuak izan ohi dira hizkuntzaren maila guztietan: fonologian, morfologian, syntaxian eta lexikoan. Horrek, hizkuntza aldatzeaz gain, hizkuntzaz aldatzea ekarri du toki askotan; esan nahi baita, hizkuntzaren ezaugarriak aldatzearekin batera, hizkuntza hori hitz egiteari utzi eta beste bat erabiltzen hasi diren hiztun-erkidegoak ere badirela. (Apalauza 2005: 27)

Esnaola ere (Esnaola, 1997:65) horretaz mintzo da ukipen egoerak ordezkatzeko prozesua indarrean jartzen duela eta ordezkatzeko hori apurka-apurka eta hizkuntzaren esparru guztietan gertatzen dela dioenean.

Ordezkatze prozesua martxan jartzeko hainbat faktore agertu behar dira, ordea, ukipena eta elebitasuna bakarrik ez baitira nahikoa. Hala baieztatzen du Junyent-ek (1996:39) hizkuntzen bizitzari eta heriotzari buruzko artikulu batean. Hizkuntzaren murriztapena, hizkuntzaren lurraldearen murriztapena eta funtzioen eta estatusaren galera aipatzen ditu



hark faktoreen artean. Lan horretan bertan (1996:46) Dressler-en aipu bat jasotzen da, hizkuntza baten desagertzea bi elementu eskatzen dituela dioena: elebitasuna eta hizkuntza-ordezkapena.

Gazte hizkeraz ari delarik, Ibarra euskara eta gaztelaniaren arteko alternantzia eta ordezkatzeaz arduratuta ageri da, bat bestearen ondoren etortzen baita maiz. Hark dio gaztelaniazko oinarria duten hitzetatik eratorritakoak erabiltzen direla, euskarazko itxura dutenak, eta horrek ondorio latzak izan ditzakeela etorkizunean:

En este aspecto no difieren mucho de lenguas en trance de desaparición, apareciendo como signo inquietante cuando es invasor y no dejando intacto ningún cambio. (Ibarra 2008: 225-226)

Ibarraren kezka gazte hizkeran gertatzen diren aldaketan inguruan sortu ohi diren iritzien oso gertukoa da. Oro har berrikuntzek eta aldaketek, eta bereziki gazteenek jarrera ezkorrak pizten dituzte gainerako hiztunen gain. Garmendiak (2001: 7) Labov-en baieztapen bat bildu zuen:

Whenever language becomes the overt topic of conversation, we find a uniformly negative reaction towards any changes in the sounds or the grammar that have come to conscious awareness (...) No one has ever been heard to say, "It is wonderful the way young people talk today. It is so much better than the way we talked when I was a kid" (...)

The almost universal view of linguistic is that the major agent of linguistic change - sound change- is actually maladaptive, in that it leads to the loss of the information that the original forms were designed to carry. (2001: 6-10)

Beraz, edozein hizkuntza aldatzea naturala da, baina ukipenean dagoen hizkuntza batean aldaketa horrek sarritan ordezkatzea dakar eta heriotza, halaberharrez. Gure azterketan aurrera egin eta Zaldibia eta Ordiziako gazteen jarduna lagin gisa hartuta euskara bide horretako zein geltokitan dagoen zehazten saia gintezke. Aurretik, ordea, kode alternantzia zertan datzan eta zergatik gertatzen den azaltzen saiatuko gara.



2.2. ZER DA KODE ALTERNANTZIA?

Bi hizkuntza leku berean batera bizi direnean haien arteko kontaktua saihestezina da. Leku horretako hiztunak elebidunak izango dira bi hizkuntzak orekan bizi badira. Ukipen egoeran hizkuntza batek bestea menderatzen badu, berriz, hiztun batzuk izango dira elebidunak eta menpeko hizkuntzan ari direnean menderatzailearen hizkuntza agertuko da diskurtsoan. Hori da kode alternantzia, bi kodeak nahasita agertzea diskurtso berean. Ingelesezko Code-switching deitura Haugen-ek proposatu zuen 1956an.

Munduan barrena ukipenean bizi diren hainbat eta hainbat hizkuntza daudela esan dugu lehenago ere. Haietako batzuetan gertatzen diren kode alternantzia adibideak jasoko ditugu hemen, baita euskararenak ere.

- Gibraltarren gaztelania eta ingelesaren artean
 - *El fish fresco (176)*
 - *Después mientras que we've gone por los muebles (194)*
- Estatu Batuetan ere gaztelaniaren eta ingelesaren artean, spanglisha deitzen dena, alegia
 - *Maria tiene que ir al doctor, pues tiene un appointment a las 3:00*
 - *Honey, apurate a cuquear la comida que ya tengo hambre*
 - *Tengo mucho homework pero no es a problem para me.*
- Indian, indua eta ingelesaren artean, hinglish izena ematen zaiona:
 - *Come on girls, waqt hai shine karne ka!*
- Hong Kongen ingelesa eta txineraren artean
 - *□□□project□present. ("I have a project I need to present.")*
- Euskal Herrian, euskara eta frantsesaren artean
 - *Maritxuk izatu zuen problema bat avec la clavicule (4)*
- Euskal Herrian, Goldaritzen, euskara eta gaztelaniaren artean
 - *Jo, ta onek bakizo ze esan tzeen? Peores cosas ya he pasau (40)*

Kode-alternantziaren adibideak ziren horiek, baina gatozen zenbait adituk emandako definizioak ikustera. García Marcosena ekarriko dugu lehenengo:



Por cambio (o intercambio / mezcla) de códigos se entiende la utilización alternada de dos lenguas en un mismo discurso o en una misma conversación. (...) El cambio de códigos suele estar vinculado a situaciones de lenguas en contacto y a contextos de uso caracterizados por su informalidad comunicativa con alto grado de solidaridad grupal. (García Marcos 1999: 262)

Inma Muñoak, besteak beste Gumperz, Sánchez eta Romainek erabilitako definizioa jaso du bere artikuluan; hau da, kode alternantzia solasaldi beraren barruan bi gramatika-sistema edo azpisistemari dagozkien hizketa pasarteak tartekatzea dela. Horrela dio:

70. hamarkadatik hona, berriz, ikerketa ugari erakutsi dute (besteak beste, Gumperz & Hernández Chávez, 1972; Plaff, 1979; Kachru, 1978; Poplack, 1980; Sánchez, 1983; Scotton & Ury, 1977) perpaus barruko kode-aldaketa elebidunen arteko komunikazioan oso maiz gertatzen den fenomeno dela. Are gehiago, egile horien arabera, gutxi dira kode-aldaketa horiek erabiltzen ez dituzten hiztun edo komunitate elebidunak... Gure lan honetan *kode-aldaketa* solasaldi beraren barruan bi gramatika-sistema edo azpisistemari dagozkien hizketa pasarteak tartekatzea izango da (Muñoa 2002: 53)

Modu bertsuan definitu zuen Ibarra ere kode alternantzia 2008an Iruñea inguruko gazteekin egindako ikerketa jasotzen duen lanean:

En resumen, transferencia se definiría, por tanto, como la influencia que una lengua ejerce sobre otra y concretamente, como el uso, en una lengua B, de un rasgo característico de la lengua A. (Ibarra 2008: 231)

Wikipedia orojakilera jotzen badugu antzeko emaitza eskuratuko dugu:

Code-switching is a linguistics term denoting the concurrent use of more than one language, or language variety, in conversation. Multilinguals, people who speak more than one language, sometimes use elements of multiple languages in conversing with each other. Thus, code-switching is the syntactically and phonologically appropriate use of more than one linguistic variety.



Definizio horiek guztiek ikusarazten dute, eta argi utzi behar da, kode alternantzia ez dela hizkuntza batean besteko maileguak edo kalkoak erabiltzea. Alternantzia gertatzen da bi hizkuntza bata bestearen ondoren erabiltzen direnean, eta kalkoak beste gauza bat dira. Honela definitzen du Garziak:

Hizkuntza batek beste baten eredutik berera egokitzen duen egiturari esaten zaio *kalko* (*mailegu* delakoa, berriz, prozedura gordinagoa da: bere horretan hartzen da elementu bat). (Garzia 2005:15)

Xavier Rull kataluniarrek bere *Els estrangerismes del català* lanean luze eta sakon aztertzen ditu maileguak. Hark dio, hizkuntza batetik bestera joandako hitza dela mailegua, eta terminoaren egokitasunagatik baino faktore sozial eta historikoengatik mailegatzen dela. Beste fenomeno bat da Rullen ustez ere, interferentziaren eta haren ondorioz gertatzen den alternantzia. Hizkuntza gutxituekin lotzen du guztiz:

En llengües minoritzades (o en una certa situació d'inferioritat política, com és el cas del català respecte a l'espanyol, el francès o l'anglès), la qüestió del manlleu adquireix una importància majúscula. En efecte, una llengua minoritzada pot rebre amb molta força l'influx d'una altra llengua (la que ocupa els àmbits d'ús de prestigi): és l'anomenada interferència lingüística, que porta a l'entrada indiscriminada d'elements lingüístics forans, fet que pot alterar a la llarga la fesomia d'un idioma. (Rull 2008: 28-29)

Batzuetan, ordea, ez da erraza bi fenomenoen arteko muga marraztea. Epelde eta Oyharçabal ere maileguen eta alternantziaren arteko marra irristakorraz jabetuta daude:

Las inserciones a nivel de N pueden aparecer tanto en una lengua como en otra. En las inserciones vascas no siempre es fácil saber si se trata de formas CS o de préstamos. Como reflejan los numerosos trabajos sobre el tema, el límite entre ambos es impreciso. (Epelde & Oyharçabal 2009:5)

Ildo beretik ari da Muñoa ere kode alternantzia eta mailegua bereizteko ahaleginean:



Kode-aldaketa eta mailegua bereizteko irizpidea Poplack-ek 1980an erabilitako bera da. Alegia, maileguak xede-hizkuntzaren fonologia, morfologia eta sintaxi arauetara egokitutako elementuak diren bitartean, kode-aldaketak ez du horrelako egokitzapenik jasango. Irizpide horrek, ordea, ez du asko laguntzen lexikoaren esparruan maileguak eta kode-aldaketak bereizterakoan. (Muñoa 2002: 57)

Kode-alternantzia zer den modu oso argian ikus daiteke ondoko testu honetan. Zorionez ez da euskal hiztun batek naturalki sortutako testua, baina norbait beldur da agidanean laster gertatuko ote den.

No se puede jarri hizkuntza bat bestearen encima. Horregatik Departamentuak ha decidido euskal hizkuntza ez dadila izan vehicular principal aurretik jarriz al castellano. Por eso digo yo, bazen garaia; ongi dago, que ya vale de inposaketa eta bi hizkuntzak berdinak daitezela. Ezin da erabili bata más que la otra: “elebitasun orekatua” edo, que le dicen. Ya era momento norbaitek behingoz gaia hartu y que pusiera sensatez pittin bat, gehiegikeriak egiten ari direla en más de un sitio euskal hizkuntzarekin. (*Caduca hoy* bloga)

2.3. ZERGATIK GERTATZEN DA?

Gorago esan dugu kode alternantzia elebidun diren hiztunen jardunean gertatzen den fenomeno dela. Beraz, komunitate elebiduna izan beharko dugu alternantzia gertatzeko. Maitena Etxebarriak horrela definitzen du komunitate elebiduna:

Para que exista una comunidad bilingüe es necesario que existan, al menos, dos grupos que no hablen la misma lengua y que haya un cierto número de miembros, en cada uno de los grupos, que sean bilingües (es decir, que hablen una lengua distinta a su lengua materna), ya sea porque usan una lengua de otro grupo de la comunidad, ya sea porque hablan una tercera lengua utilizada como *lingua franca*; además, una, o más de una de estas lenguas deben ser lenguas oficiales de la comunidad. (Etxebarria 1995: 55)

Ongi da. Hiztun komunitate elebiduna badugu. Komunitate horretan, hortaz, bi hizkuntza edo gehiago ukipen egoeran egongo dira. Ukipenak berarekin dakar, ezinbestean, eragintrukea, eta erraza da bataren ezaugarriak aurkitzea bestean:



Desde el momento en que dos códigos lingüísticos se encuentran en situación de contacto, la interferencia puede producirse en todos los niveles: tanto en el léxico (donde más fácilmente puede darse) como en el sintáctico e incluso en el fonológico. (Etxebarria, 2003: 3).

Amonarrizek ohartarazten digu hizkuntza gutxituetan eragin-truke hau nabarmenagoa eta are, larriagoa izaten dela:

Ukipen egoeratan edo gurea bezalako egoera soziolinguistiko minorizatueta bizi diren hizkuntzen kasuan gainera, besteetan ez bezalako fenomenoak gertatzen dira; hizkuntzaren azala ez ezik, hizkuntzaren egitura bera ukitzen dutenak, batzuetan, bere biziraupena ere zalantzan jarriz. (Amonarriz 2009: 7)

Saussurek adierazi bezala, hizkuntza-aldakortasuna berezko ezaugarria da, baina kode alternantziak, berezkitasun horretatik haratago, behar berrietara egokitzeko jarrera eta mendekotasuna isla ditzake.

Hizkuntzalari batzuek pentsatzen dute kode alternantzia hiztun elebidunen gabezien ondorio dela. Alegia, menpeko hizkuntzan ari direnean ez dutela nahikoa ezagutza komunikazio-xedera heltzeko, eta horregatik hizkuntza nagusiko hitzak, perpausak... behar dituztela. Geroago aztertuko dugu gazteei hertsiki dagokionez adituek zer dioten, baina helduei dagokionean ere geroz eta gehiago dira iritzi horren aurka agertzen diren ahotsak. Hala diote Epeldek eta Oyharçabalek:

El cambio de código, según Poplack (1980), no debe relacionarse necesariamente con deficiencia ni en el hablante, ni en las lenguas implicadas. Se trata, más bien, de un buen indicador de la habilidad bilingüe de los hablantes competentes en ambas lenguas. Así, una de las características comunes de los hablantes que lo practican es, precisamente, que suelen ser plenamente bilingües, completamente capaces de expresarse con suficiente fluidez en las dos lenguas (Poplack 1980, Nortier 1990), como es el caso de nuestros informantes (véase el apartado 2). Incluso, para algunos hablantes esta forma de expresarse puede ser el código no marcado en algunas circunstancias (Mondada 2007). (Epelde & Oyharçabal 2009:2)



Apalauzak Romainen ildo bereko aipu hau dakargu:

Tal modo mezclado de hablar sirve a importantes funciones en las comunidades donde se produce, y (que) no sucede al azar. Pese a ello, en prácticamente todas las comunidades donde se da está socialmente desprestigiado. (1996 [1994]: 77)

Muñoaren lanean oinarrituta hona hemen azken hamarkadetan gai honi buruz izan diren iritzien bilduma bat.

McConvell-ek zioen kode aldaketa guztiek nolabaiteko esanahia zutela. Gumperz-ek, berriz, uste du kode aldaketak informazioa ematen duela, baina aldaketa bakoitzak esanahi jakina duenik ez du pentsatzen. Komunitate elebidun bateko hiztun elebidun batek komunikaziorako duen aukera gisa ikusten du kode aldaketa, eta hizkuntza batetik bestera aldatzeak funtzio adierazkorra izango luke.

Sánchezek, berriz, komunitate txikianoan kode alternantzia gertatzeko zergatiak aurkitu zituen: hizketa-ekintzaren araberakoak, estiloaren araberakoak eta konnotazioaren araberakoak.

Heller-entzat kode aldaketa estrategia politikoa da, eta Scotton eta Ury-k hiztunak kodez aldatzeko hainbat arrazoi izan ditzakeela diote.

Horienak guztienak bildu ondotik Muñoak bere ikerketatik ondorioztatutakoa aipatzen du. Bi funtzio ikusi dizkio kode alternantziari berak aztertutako diskurtsoan:

Lehenengo begiradan argi geratzen da kode-aldaketa zenbaiten zergatia linguistikoa dela erabat, hau da, hiztunek gaztelerara jotzen dute kontzeptu edo objekturen bat euskaraz adierazteko gai ez direnean... Beste zenbaitetan kode-aldaketaren arrazoa elkarrizketaren gaian edo konnotazioaren esparruan aurkituko dugu, esate baterako, esapide batzuek duten adierazkortasun handian. (Muñoa 2002: 57-58)

Etxebarriaren ikuspegia ere ekarri nahi dugu hona. Hark dio Poplack-ek elebidunen kode-nahasketa ez dela gabezia zioela, hiztun elebidun orekatuaren seinale baizik. Ikerketaren ondorioetan jasotzen du hainbat arrazoi egon daitezkeela kode alternantzia gertatzeko, hala nola, linguistikoak, hiztunen talde soziolinguistikoa, eta elkarrizketaren izaera formala edo informala, baina funtzio linguistikoak sozialei gailentzen zaizkiela.



Azkenik, Ibarrek Erroibarren lexikoaren alternantzia gertatzeko emandako arrazoiak aipatuko ditugu, gainerako kategorietara estrapolatu daitekeelakoan. Weinreich eta Muysken aintzat hartuta zerrenda hau osatu du (Ibarra 2006:182):

- Kultur eraginarengatik
- Jatorrizko hitz asko badirelako galtzen direnak eta arrotzek ordezkatuak direnak
- Anbiguitateak ekiditeko bi hitz antzekoak izatekotan
- Hitz afektiboen sinonimoen beharra etengabea delako, eta lehenagotiko hitz horiek beren balio adierazkorra galdua zutelako
- Sinonimoen beharra handia delako
- Bereizketa semantiko berriak egiteko beharra dagoelako
- Elebitasun bortitzaren ondorioz, hitz bat ia ohartu gabe sar daitekeelako

2.4. ALTERNANTZIA MAILAK

Muñoak Poplacki jarraituz eta Apalauzak, berriz, Muñoari jarraituz osatutako sailkapenera jotzen badugu hiru kode alternantzia maila bereiziko ditugu.

2.4.1. Makulu-aldaketak

Hizkuntza batean gauzatzen ari den elkarrizketa batean beste hizkuntza bateko makuluak bereganatzean datza. Adibidez, *esan nahi dut, esto...; joango gara ¿no?; gaupasa egingo duela? qué va!...*

2.4.2. Perpausen arteko aldaketak

Perpausaren edo esaldiaren mugen arteko aldaketa egitean datza, hau da, perpaus bakoitza hizkuntza batean egingo litzateke. Adibidez: *Atzo zinera joan ginen; la peli era un rollo.*

2.4.3. Perpaus barruko aldaketak

Perpausaren beraren barnean kodez aldatzea litzateke. Aldaketa hori hitzaren mugen barruan ere gerta daiteke (izen sintagma, izena edo adjektiboa, esate baterako, elkarrizketako hizkuntza nagusia ez den beste batean agertzea). Adibidez, *Da un marron lan hori egitea.*



2.5. ZER DA GAZTE HIZKERA? NOLAKOA DA?

Gazte hizkera gazteek egiten dutena dela esateak Pernandoren egia irudi lezake, baina zer da galderari erantzutean hori da oinarri-oinarrizko erantzuna. Gazteek haien artean komunikatzeko darabilten erregistroa da, helduengandik ezberdintzen dituen.

Eta nolakoa da? Ia-ia ohitura bihurtu da esatea gazteen hizkera, edozein hizkuntzatan, txarra dela, pobrea. Natalia Catalák (in Rodriguez 2002:123) dio baieztapen hori topiko bihurtu dela gaur egun eta kalitate txarrekoa dela diotenengan espiritu arau-emailea gailentzen dela. Gazte hizkera sutuki defendatzen du (2002:133):

Y parece absurdo –cuando conocemos hoy mejor que nunca la naturaleza del lenguaje humano– seguir defendiendo que una variedad lingüística determinada refleja un uso incorrecto y considerar que un argot particular puede corromper el lenguaje.

Illo beretik, eta iritzi orokorraren aurka, gazteen hizkera ikertu duen Vigarak (2008) dio beti ezkor dauden horiei esan behar zaiela hizkuntza ez doala gainbehera, hizkuntza garatu eta aldatu egiten dela.

Kalitatea gorabehera, gazte hizkerak ezaugarri komunak dituzte munduko hizkuntza guztietan. Formari dagokionez, sinonimo eta ordezeko lexikoak erabiltzen dituzte, atzizki bitxiak sortzen dituzte, hamaika gauza esateko hitz bera erabiltzen dute, interjekzioak asko erabiltzen dira, esaldi askotan ez dago aditzik eta abar. Ibarrek horrela dio:

Jakina denez, munduko hizkuntza guztien gazte-hizkeran jada zehaztu diren prozedura batzuk erabiltzen dira: metaforizazioa, atzerriko hizkuntzen mailegua, delinkuentziazatik eta drogaren arlotik datorren hiztegiaren erabilera eta disfemismoen eta zakarkerien baliabidea (hau da, erdi- eta goi-klaseek baztertutako kodeak). (2009)

Izan ere, gazte hizkera faktore batzuei lotuta dago, hala nola, sexua, jatorria, adina, arraza, herria eta abar, eta hain zuzen ere, beheagoko estamentuetako lexikoa iritsi ohi da gazte hizkerara, hizkuntzari gizarteko arauen kontrako jarrera erantsiz. Ahozkotasunaren eta marginalitatearen oihartzunak ditu gazte hizkerak, gai batzuekin lotura estuagoa izan ohi du



(drogak, sexua, aisialdia, maite kontuak...) eta gainerako hizkuntzetatik errazago pasatzen dute galbahea hitzek eta lokuzioek gazte hizkerara araututako hizkuntzara baino.

Baliabide hauek guztiak azkar sortzen dira, bat-batekotasuna da nagusi, adierazkortasuna. Sorkuntza lana handia da, eta maiz, bizitza laburra izaten dute sorkuntza horren emaitzek. Gazte hizkerak, arauaren aurka egiteaz gain, funtzionalitatea bilatzen du, komunikazioa bere kide direnekin, eta osotasun horretan ulertu behar da. Sistema nagusiko azpisistema hori arautu gabea, ezezaguna eta akasduna izaten da hasieran, baina ezaugarri horietako asko hizkera estandarrera igarotzen dira gero.

Gazte hizkeraren ezaugarriak hizkuntzaren maila guztietan aurki daitezke teorian (lexikoan, morfologian, sintaxia, fonetikan...), baina Zimmermannek (in Rodriguez 2002: 158) dio, dena dela, hizkuntzaren oinarriko egiturak ez direla aldatzen.

2.6. ZERTARAKO DA KODE ALTERNANTZIA LAGUNARTEKO GAZTE HIZKERAN?

Orain arte ikusi dugunaren arabera kode alternantzia ohiko fenomeno da ukipen egoeran dauden hizkuntzen artean. Munduan zehar hainbat hizkuntzaren artean gertatzen dela egiaztatzen duen bibliografia ugari dago. Ikusi dugu, era berean, kode alternantzia zergatik gertatu daitekeen edo ze funtzio izan ditzakeen. Gazte hizkeretan gertatzen diren kode alternantziek bestelako xehetasunak dituzte, ordea, bereziak, eta horiek ikusiko ditugu atal honetan.

Aurreko teoria hori guztia gazteen hizkerara ekarriko dugu, eta adin tarte horretan kode alternantziak dituen berariazko funtzioak definitzen saiatuko gara hainbat adituren lanetan oinarrituta.

Kontuan izan behar da banakoak bere adin taldearekin identifikatuko duen hizkera erabiltzera joko duela, beste ezaugarri batzuekin batera (klase soziala, kultura-maila...). Baina nerabezaroan dira boteretsu, batez ere, helduetatik bereiztu eta adinkideekin elkartasuna adierazteko indar sozialak. Nerabe oro jende helduarengandik bereiztuko duen izaera markatzaileen bila dabil, eta gehienek hizkuntza aldaera jakin batzuk areagotu egiten dituzte. Soziolinguistikaren ikuspuntutik, nerabeak hizkuntza berrikuntzen eta aldaketen gune izatearekin bat dator hau. Garmendiak (2001, 18) Chambers-en aipu hau jaso du bere lanean nerabeen jokabide honetaz:



Rebellion can be expressed superficially in distinctive outer markings such as green-dyed hair, nose-rings and purposely torn jeans. It is also marked in a linguistically superficial way, by the use of a distinctive vocabulary called slang, in which terms become fashionable and serve as markers of ingroup membership, and then quickly become outmoded in order to mark their users as outsiders (...). These outer markings, first, they must be deemed frivolous and / or extravagant by elders (...). Second, it is essential that these outer markings be approved and shared by other adolescents.

Orreaga Ibarrek ere, orokortasunetik euskal gazteengana jauzi egin eta iritzi bertsua ematen du gazteen hizkeraren arrazoiak azaltzerakoan.

Los jóvenes utilizan un argot propio, juvenil, para reforzar las relaciones vivenciales próximas y la comunicación fática; su finalidad es diferenciarse de otros y reforzar el contacto social y las relaciones entre ellos. (Ibarra 2008: 220)

Apalauzak (2005: 67), Silva Corvalanen hitzak jaso aurretik dio adinaren arabera aldatu egiten dela hizkuntza, eta gazteek bultzatzen dituztela berrikuntza eta aldaketa nabarmenenak. Gazteak gazte dira mundu osoan, eta hizkuntza izan ohi da horien identifikazio-tresna garrantzitsuenetariko bat. Apalauzaren iritzi taldearekin identifikatzeko behar handia izaten dugu gaztaroan; hau da, talde-nortasuna oso indartsua da gazte-denboran. Eta hizkuntza aldatzea edo gazteen hizkera sortzea eta garatzea da taldearekin identifikatzeko moduetako bat. Silva-Corvalanen aipua ekarriko dugu guk ere.

El grupo de edad que más propende a diferenciarse lingüísticamente es el de los adolescentes, quienes se identifican con su grupo esencialmente por medio del uso de vocabulario y expresiones propias de ellos y de su tiempo.

Klaus Zimmermann-ek dio (in Rodriguez 2002:139) gazteek kultura-sistema berezkoa sortu dutela, eta horrekin batera hizkera. Taldearen baitan kulturaren eta arauaren aurka daudela adierazteko modu gisa ulertzen du berak gazte hizkera, eskolako arauaren, estilo kultuaren eta helduen kulturaren aurka agertzeko adierazpide gisa.

Gazteen hizkera aztertzen gure artean lan handia egin duen Imanol Esnaolak ere antzeko baieztapena egin zuen lan batean:



...gazteak dibergentzia adierazi beharra dauka. Psikolinguistikak sakon aztertutako fenomeno hau gaur egun nahikoa zehaztasunez ezagutzen dugu, eta badakigu hizkuntza burubaiespenerako tresna dela kasu askotan. Hau da, bestearengandik bereizteko, edo bestela esanda, izaera propio edo berezia indartzeko erabiltzen dela. Eta horregatik gazteak ez du bere guraso, irakasle edo telebistako albistegietako esatarien moduan hitz egin nahi lagunartean dagoenean, haiek ez datozelako talde hori batzen duen hariarekin bat. Eta desberdintasuna adierazi beharra dauka. (Esnaola, 1998: 104)

Teoria honekin guztiarekin aurreikus genezake Zaldibiako eta Ordiziako gazteek euren adinari dagokion hizkera erabiliko dutela, eta hizkera hori sortzeko gaztelaniara joko dutela zenbaitetan hizkuntza-ukipenaren eraginak aintzat hartzen baditugu, behintzat.

Baina zertarako joko dute, zehazki, gaztelaniara Euskal Herriko hiztun gazteek euskaraz ari direnean? Etxebarriak (1995: 58) bere artikuluan dakarzkigu Gumperzek kode alternantziari emandako bost funtzioak: aipuak egiteko, informazio argigarria emateko, interjekzioak egiteko, errepikatzeko, mezua kualifikatzeko eta objektibatzeke. Muñoak bere lanaren ondorio gisa sei funtzio ematen dizkio kode alternantziari: gaitasun eza konpentsatzea, gaiaren konnotazioa azpimarratzea, konnotazio negatiboa leuntzea, aipamen zuzenak egin ahal izatea, esandakoa indartzea edo arbuiatzea eta elkarrizketaren norabidea aldatzea.

Gazteen hizkerari bagagozkio, ordea, eta Kataluniara begiratzen badugu, Mireia Galindok (2008: 101) gaitasun mailako gabeziatik haratago, sei funtzio ematen dizkio katalanaren baitako gaztelaniaren alternantziari:

- Alternança a causa de l' interlocutor
- Alternança per expressar una segona veu
- Alternança a causa de la competència lingüística
- Alternança per incorporar expressivitat
- Alternança per insistir o remarcar
- Alternança per aconseguir efectes lúdics o humorístics

Ezinbestean, Amonarriek (2009:30) antzeko bost funtzio hauek biltzen ditu euskarari dagokionez: adierazkortasuna lortzeko gaitasun linguistikorik eza, euskarara heltzeko bidetzat hartzea, besteen hizkerarekin bat egiteko modua, erreferentzia eta irudi sinboliko



gehienak erdaraz egotea, eta ezagutzen ez dituzten lokuzioei eta esaera zaharrei ordaina bilatzea.

Azkenik, Ana Maria Vigarak, sinplifikatuta, hauxe dio gazte hizkeraren funtzioen gainean:

Baina nik uste dut gazteek horrexegatik egiten dutela, gurasoek ez ulertzeko.
Haiek hola behar dute hitz egin, hola egiten dituzte harremanak beste gazteekin.

2.7. NOLAKOA DA EUSKAL HERRIKO GAZTE HIZKERA?

Euskal Herriko gazteen euskararen gainean orain arte egindako ikerketek erakusten dute, munduko gainerako hizkuntzetan bezalaxe gazte euskaldunen hizkeran ere adinari dagozkion berezko ezaugarriak ageri direla. Gazteei eta gazte elebidunei dagozkien ezaugarriak, hain zuzen ere.

Aditu bat baino gehiago bat datoz euskal gazteen hizkera euskara eta gaztelaniaren artean sortutako *pidgin* batetik gertu dagoela esaterakoan. Izan ere, gazteen euskara txarra dela, gainbehera doala, pobrea dela, gaztelaniaren eta frantsesaren prosodia eta azentua bereganatu dituela, korapilatsua eta traketsa dela... iritzi zabaldua da euskal gaietako adituen eta ez hain adituen artean, eta kezka sortzen du gai honek.

Begi-bistakoa da euskara asko aldatu dela azken hamarkadetan. Euskalkiei euskara batua gehitu zaie eta gaztelaniak eta frantsesak nagusiki baina ingelesak ere bai, eragin nabarmena izan dute harengan. Hiztegira, morfosintaxiara, fonetikara... arlo guztietara iritsi dira aldaketak, eta gazte hizkeretan aldaketa horiek guztiak agertzen dira.

Dena dela, gazteen gaztelaniaren inguruko bibliografia irakurri besterik ez dago (Casado, 2002 eta Herrero 2002, in Rodriguez 2002: 57-96) ikusteko gazteen euskararen ageri diren ezaugarriak gaztelanian ere agertzen direla, adibidez. Euskararen egoeraren ondorioz bakarrik sortutako aldaerak direla ezeztatzeko balio dute ezaugarri horiek: irain ugari, hitzak moztuta, interjekzioak, adizki berriak eta abar.

Bestalde, atal honen izenburuan "hizkera" badator ere, gazte hizkerak ditugu Euskal Herrian, Amonarrizek dioen bezala "errealitate linguistiko adina" (2009: 17), eta badakigu Euskal Herriaren luze zabalean errealitate ugari ditugula.

Amonarrizek berak, gazte hizkera boterearen hizkuntzaren kontrako hizkera gisa sortzen dela dio eta, beraz, Euskal Herrian hainbat jarrera sortzen direla transgresio gisa:



Arau eta botere horien aurrean, jarrera desberdinak agertzen dira: euskararen beraren erabilera errefusatuko dutenak (erdara erabiliz), edo “batu”tik edo “etxeke euskara”tik aldenduko diren erabilera “nahasiak” (batua, euskalkiak eta erdarakadak). (Amonarriz 2009:18)

Joera horiek ulertzeko garrantzitsua iruditzen zaigu euskal gazteen egoera linguistikoa zein den aipatzea euskarari berari dagokionez. Ibarrek Eusko Jaurlearitzako Euskararen Aholku Batzordeak aipatutakoak biltzen ditu (Ibarra 2009):

- Kontuan hartu behar da azken hamarkadetan euskarak hainbat mendetan egon ez den lurralde-hedapen handia izan duela, batez ere gazteen artean. Esan daiteke gaur egun ez dagoela euskaldun elebakarrik.
- Euskaldun guztiak elebidunak edo eleaniztunak gara. Horrez gain, gaur egungo euskaldunen artean gero eta gehiago dira jatorrian euskaldunak ez zirenak eta gaztelaniaz edo frantsesez euskaraz baino hobeto moldatzen direnak.
- Euskal probintzietan euskaldunak gero eta gehiago dira, nahiz eta Nafarroan joera hori poliki-poliki joan eta Iparraldean euskaldun kopurua murriztu.
- Gero eta euskaldun gehiago daude, batez ere umeei eta gazteei esker.
- Gero eta zailagoa da euskara pixka bat ez dakiten gazteak aurkitzea.

Euskararen errealitate soziolinguistikoak, gazteen transgresiorako joerak eta adierazkortasuna lortu nahiak, hemen eta orain, ezaugarri komunak dituzten hizkerak sortzea ekarri du, ikerketa bat baino gehiagotan jaso direnak.

Laburbilduz, hauexek dira gaur egungo euskarazko gazte hizkeraren ezaugarri komun horiek (Amonarriz, 2009; Apalauza, 2005; Ibarra, 2008):

- Euskara nahasia da, euskara, erdarak, batua, euskalkiak, forma berriak, euskara zuzena eta euskara akastuna nahasten baitira
- Erdararen eragina orokorra eta handia da, eta kode alternantzia gertatzen da hainbat gramatika mailatan. Kalkoak eta egitura desegokiak ere ohikoak dira.

Oro har, horiek biak dira gazte hizkeraren joerak, baina fenomeno horiek diskurtsoan noiz eta nola gertatzen diren zehazten hasten bagara ezaugarri ugari zerrendatu beharko ditugu. Atalka osatuko dugu guk zerrenda:



Interjekzioak

Gazteek asko erabiltzen dituzte interjekzioak, eta horietako gehienak gaztelaniatik bere horretan hartuak dira hegoaldeko euskaretan: *ya, bua, bale, beinga, yasta...*

Diskurtsoa antolatzeko partikulak:

Hauek ere gaztelaniatik hartuak dira eta gazteen edozein elkarrizketatan agertzen dira: *pues, bueno, o sea...* Diskurtsoaren amaieran onespena lortzeko erabiltzen direnak ere tartean daude: *ez, ezta...*

Irain eta biraoak

Edozein esaldik balio du irain edo birao bat tartekatzeko. Eta hauek ere gaztelaniazkoak dira batez ere: *mierda, capullo, puto...*

Morfosintaxia

- Orinaldi burutugabea erabiltzen da geroaldia erabili behar den forma askotan: *joaten gara kalera? Laster bukatzen duzu?*
- Kausazko perpausak osatzeko *porque* partikula erabiltzea. Edo *zeren* erabiltzea *-lako* atzizkiaren kaltetan. Eta *ya que, así que* erabiltzea arrazoia bat ematerakoan.
- Azalpenezko perpausetan *es que* erabiltzea (*Es que nekatuta nago*)
- Moduzko perpausak osatzeko *nola* partikula erabiltzen dute gaztelaniazko *como*-ren eraginez (*nola ez dugun gainditu, nola mezua bidali zidan*)
- Gaztelaniazko *si* erabiltzea protesta adierazteko (*si ez da etortzen*)
- *Ere* partikula oker erabiltzea (*ere esan diot Maiteri*)
- *Bat* zenbatzailea gaztelaniak erabiltzen duen eran erabiltzea (*gogo bat, bero bat*)
- Izan eta egon aditzen adizkiak perpausaren hasieran jartzea gaztelaniaz bezala (*da polita, dago oso urruti*)
- Perpaus erlatiboak osatzeko konpletiben marka (-ela) erabiltzea (*dago beste bat dela hobeagoa*)
- Baietz edo ezetz erabili ordez *a que* erabiltzea (*a que iristen naizela lehenago*)



- Bezalako erabili orde bezala erabiltzea konparazioetan (*gu bezala da*)

Gramatika-kasuak

- Non eta nondik kasuak nahastu egiten dira (*kaletik ibiliko da*)
- Gaztelaniazko forma pasioen eraginez egitura bereziak sortu dira –*gatik* atzizkiarekin (*ikasleengatik ekarria izan zen*)
- Noraino eta nondik kasuak ere nahastu egiten dira (*soinekoa hemendik iristen zitzaidan*)
- Mugagabea ez da erabiltzen, eta erabiltzen denean maiz oker (*zein etxera joan ginen?*)
- Partitiboa ere geroz eta gutxiago erabiltzen da gaztelaniak halakorik ez duelako (*ez daukat hori erosteko dirua*)
- Ergatibo kasuaren marka (-k) galdu egiten da askotan (*ni uste dut ondo dagoela*)
- Noiz eta noiztik kasuak nahastea ere gertatu ohi da (*Arratsaldetik lan egiten du*)

Aditza

- Nor-nork paradigma erabili orde nor-nori-nork erabiltzen da sarri (*korrika ikusi nion*)
- *Deitu* aditza izena adierazteko erabiltzen da (*Aitor deitzen da*)
- *Egin* ez da galdegaia indartzeko erabiltzen (*dagoeneko ez dago hemen, joan da*)
- Hika alokutiboa geroz eta gutxiago erabiltzen da, eta askotan gaizki, forma zuzenak oker edo forma berri asmatu okerrak.
- Aditz paradigma berriak sortzen dira, analogiaz gehienak (jat, jau, jatzu...)
- *Gogo izan* pluralean erabiltzen da, gaztelaniaz bezala (*izugarrizko gogoak dauzkat*)
- Aditz trinkoak geroz eta gutxiago erabiltzen dira perifrastikoen mesedetan
- Aditzaren aspektu hipotetikoa –go+lehenaldia erabilia egiten dute (*ederra izango zen loteria tokatzea*)



Lexikoa

- Anglizismoak oso ohikoak dira gazteen artean (*fan, messenger*)
- Teknizismoak ere bai, teknologia berriei eta ikasketei lotutakoak, batez ere (*curriculum, goi ziklokoa...*)
- Batuaren eraginez kode estandarretik kanpoko euskarazko hitzak galduz doaz (*domeka, agorrila...*)
- Maileguak desagertuz doaz euskal formek ordezkatu ahala (*aiuntamentua, telebisioa...*)

2.8. LAN HONETARAKO HIPOTESIAK

Euskaraz kode alternantziaren inguruan egin diren ikerketak eta bi herrietako errealitate soziolinguistikoak kontuan izanda, pentsatzekoa da gainerako azterketetako emaitza bertsuak emango dituela gure azterketak ere alternantzia mailari dagokionez. Ondorioetan zehaztuko dugu batzuek *euskañol* deitzen dioten pidgin horretara zenbateraino hurbiltzen den Zaldibiako eta Ordiziako gazteen euskara.

Dena dela, ikuskizun dago ea Imanol Esnaolak zioen bezala (Esnaola, 1997: 63) herri euskaldunetan eta erdaldunetan bizi diren gazteen arteko euskararen kutsadura eta gaixotasun maila ez den hain ezberdina edo oraindik ere aldeak badauden. Zaldibia eta Ordiziaren arteko alderaketak erakuts diezaguke hori, eta baita Ibarrek Iruñean bildutako datuek ere.

Kode alternantziaren funtzioei dagokionez ere gauza bera esan daiteke. Gazte euskaldunek adierazkortasuna eta erreferentzialtasuna gaztelaniaren bitartez lortzen dituztela erakutsi badute orain arteko ikerketek, Zaldibian eta Ordizian ere horretara joko dutela uste dugu. Ibarrek dio (2008: 220) gazteek eskolako hizkuntzaren, estilo kulturaren eta helduen kulturaren aurka egiten dutela beraien nortasun apartekoa aldarrikatzeko, eta ahozkotasunera hurbiltzen direla horretarako. Joera horiek berrestea espero dugu guk ere.

Bestalde, idatzizko jarduna aztertzerakoan ere joera horiek agertuko direlakoan gaude. Ahozkotasunera hurbilduko da erabat lagunarteko produkzio idatzia (SMSak, emailak, messengerreko mezuak...), teknologia berrietan mundu osoan zabaldu diren laburdurak erabiliko dituzte, eta gure gaiari lotuta ahozkoan ageri diren kode alternantzia kasu berak agertzea aurreikusten dugu, arauzko idatzitik ihes egingo baitute.



3. GAZTEEN DISKURTSOAREN AZTERKETA

3.1. HIZTUNAK

Ikerketa lan hau egiteko Zaldibia eta Ordiziako gazteen lagin txiki bana izan dut oinarri. 17-18 urteko gazteak dira denak, bigarren batxilergoa bukatzeaz daudenak eta datorren urteko unibertsitateari edo bestelako aldaketa handiari begira daudenak. Zaldibiarrek 12 urte arte herrian ikasi zuten eta gero Ordiziako Oianguren institutura joan ziren DBH eta batxilergoa egitera. Han Ordizia, Itsasondo eta Legorretako adinkideekin izan dute hartu-emanak. Ordiziarrek, aldiz, eskolatutako ikastola berean egin dituzte azken ikasturte hauek ere. Jakintza ikastolara herritarrek joaten dira nagusiki.

Ikasketa guztiak euskaraz egin dituzte, beraz. Lagunartea ere euskalduna dute, eta etxeko giroa ere bai. Ezagutza handiko hiztunak dira, alegia.

3.1.1. Zaldibia

Janire Lopez Irastorza, 17 urte. Bigarren batxilergoa ikasten. Ama euskalduna, aita ez	
Etxean euskaraz	Musika hainbat hizkuntzatan
Lagunartean euskaraz	Telebista euskaraz eta gaztelaniaz
Eskolan euskaraz eta gaztelaniaz	Irakurri euskaraz eta gaztelaniaz

Josune Gorospe Insausti, 18 urte. Bigarren batxilergoa ikasten. Ama eta aita euskaldunak	
Etxean euskaraz	Musika hainbat hizkuntzatan
Lagunartean euskaraz	Telebista euskaraz eta gaztelaniaz
Eskolan euskaraz	Irakurri euskaraz eta gaztelaniaz

Ane San Miguel Otegi, 17 urte. Bigarren batxilergoa ikasten. Ama eta aita euskaldunak	
Etxean euskaraz	Musika hainbat hizkuntzatan
Lagunartean euskaraz	Telebista euskaraz eta gaztelaniaz
Eskolan euskaraz	Irakurri euskaraz eta gaztelaniaz



Maddi Mendizabal Laguardia, 16 urte. 1. batxilergoa ikasten. Ama eta aita euskaldunak	
Etxean euskaraz	Musika hainbat hizkuntzatan
Lagunartean euskaraz	Telebista euskaraz eta gaztelaniaz
Eskolan euskaraz	Irakurri euskaraz eta gaztelaniaz

Katrin Lizarralde Nazabal, 18 urte. Bigarren batxilergoa ikasten. Ama euskalduna, aita ez	
Etxean euskaraz eta gaztelaniaz	Musika hainbat hizkuntzatan
Lagunartean euskaraz	Telebista euskaraz eta gaztelaniaz
Eskolan euskaraz	Irakurri euskaraz eta gaztelaniaz

Josu Irastorza Garmendia, 17 urte. Bigarren batxilergoa ikasten. Ama eta aita euskaldunak	
Etxean euskaraz	Musika hainbat hizkuntzatan
Lagunartean euskaraz	Telebista euskaraz eta gaztelaniaz
Eskolan euskaraz	Irakurri euskaraz eta gaztelaniaz

3.1.2. Ordizia

Irune Agirre, 17 urte. Bigarren batxilergoa ikasten. Ama eta aita euskaldunak	
Etxean euskaraz eta gaztelaniaz	Musika hainbat hizkuntzatan
Lagunartean euskaraz eta gaztelaniaz	Telebista euskaraz eta gaztelaniaz
Eskolan euskaraz	Irakurri euskaraz eta gaztelaniaz

Garazi Otegi, 17 urte. Bigarren batxilergoa ikasten. Ama eta aita euskaldunak	
Etxean euskaraz	Musika hainbat hizkuntzatan
Lagunartean euskaraz eta gaztelaniaz	Telebista euskaraz eta gaztelaniaz
Eskolan euskaraz	Irakurri euskaraz eta gaztelaniaz



Maitane Satrustegi Calvo, 17 urte. Bigarren batxilergoa ikasten. Aita euskalduna, ama ez	
Etxean euskaraz eta gaztelaniaz	Musika hainbat hizkuntzatan
Lagunartean euskaraz eta gaztelaniaz	Telebista euskaraz eta gaztelaniaz
Eskolan euskaraz	Irakurri euskaraz eta gaztelaniaz

3.2. METODOLOGIA

Gazteen lagunarteko kode alternantziaren azterketa hau egiteko hiru grabazio egin ditugu, bi Zaldibian eta bat Ordizian. Zaldibiako batean ikertzaileak berak parte hartu zuen eta beste bietan gazteak euren gisara aritu dira, elkarrizketatzaile eta gidoirik gabe. Izan ere, lehenengo grabazio hartan argi geratu zen hiztunek arrotz baten aurrean autokontrol jarrera nabarmenak dituztela. Jarrera hau baieztatzen dute Apalauzak esandakoek:

Moreno Fernández ikertzailearen arabera, hiztuna bera ohartzen ez denean jasotzen da beregandik informazio soziolinguistikorik egokiena eta baliagarriena. Ideia horrek Laboven “the observer’s paradox” dakarkigu gogora, hau da: “El objetivo de la investigación lingüística de la comunidad ha de ser hallar cómo habla la gente cuando no está siendo sistemáticamente observada; y sin embargo sólo podemos obtener tales datos mediante la observación sistemática.” (1983 [1972]: 266). (Apalauza 2005: 16)

Arazo hau areagotu egiten da, Weinreichek dioenez, lortu nahi dugun informazioa kode alternantziari buruzkoa bada:

L’ observació de la interferència en l’ acte de parla és molt més precari. (Weinreich 1996: 51)

Lehenengo saio hartako gidoiak gai informalez lagunarteko giroan hitz egiteko aukera ematen zuen, baina hiztunak ez daude egoera natural batean eta haien hizkera ere ez da naturala. Edozein delarik ere gaia, alde handia egon ohi da hiztunak esaten duenetik hiztunak benetan egiten duenera, jarreratik portaerara. Eta lehen esperientzia hartan hori argi jaso genuenez beste bi grabazioetan gai librean aritu dira.

Bi taldeei esan diegu haien herrietan lehen adinekoen euskara jaso genuen gisa berean jaso nahi dugula orain gazteena, baina zehaztu gabe kode alternantzia aztertu nahi dugula euren diskurtsoan.



Gai librean aritzeaz gain hausnarketarako zenbait galdera egin dizkiegu berriemaileei. Euskararen inguruan eta gaztelaniak euskararen duen eraginaren inguruan zer pentsatzen duten jakin nahi izan dugu horrela.



Eta, azkenik, beraien idatzizko diskurtsoa eskatu diegu. Sakelako telefonoetako SMS mezuak, posta elektronikoko mezuak, txatetakoak, messengerreko elkarrizketak, sare sozialetakoak... Testu hauek guztiek lagunartekoak behar dutela esan diegu, eta idatzi bezalaxe emateko, zuzenketarik edo bestelako aldaketarik gabe.

3.3. HERRIEN HIZKUNTZA-EZAUGARRIAK

Zaldibia eta Ordizia Gipuzkoako Goierri eskualdeko herriak dira. Zaldibiak 1.515 biztanle zituen 2010. urte hasieran eta Ordiziak, berriz, 9.772. Historikoki harreman handia izan dute bi herriek. Batetik, Zaldibia Ordiziaren menpekoa izan zelako; bestetik, zaldibiarrak asko joan izan direlako Ordiziara azokara, erosketak egitera, ikastera, lanera eta abar. Ordizia Goierriko zerbitzuen herria izan da aspalditik, eta Zaldibia zerbitzu horiek baliatzen zituen eta dituenetako herri bat.

Ordizia gerra zibila baino lehenago ere erdalduna zela diote garai hura bizi izan zuten herritarrek. Gero, diktaduraren ondoren, Euskal Herriko beste toki askotan bezala, ikastolak eta gau-eskolak sortu ziren eta nabarmen gora egin zuen ezagutzak. Tartean, ordea, bi belaunaldi erdaldun izan dira, haurtzaroan ikasitako hizkuntza galdu dutenak, eta etxean sekula ikasi ez dutenak. Garai berean, gainera, Espainiatik etorritako etorkin kopuruak ere gora egin zuen. Zaldibia, berriz, erabat euskalduna izan da eta da oraindik ere, 60ko hamarkadan etorritako etorkin zenbait sekula euskaldundu ez diren arren.



Datuei erreparatuz gero, Zaldibian 2001ean herritar gehienek zekiten euskaraz (EDB), eta Gazteen ezagutzari hertsiki begiratzuz gero, ehunekoa gora doa erabat:





Zaldibiako erabilera daturik ez dugu, baina ezagutza mailatik oso gertu dagoela esatea egiatik oso gertu dagoela uste dugu.



Ordiziari dagokionez, 2001eko ezagutza datuek diote ordiziarren ehunetik ia hirurogeik badakitela euskaraz; eta gazteen artean hamarretik bederatzik:



Ordizian, Zaldibian ez bezala, euskararen erabileraren kale neurketak egin ohi dituzte, eta 2006ko datuak dira azkenekoak. Erabilera orokorra % 36koa da, eta gazteena zertxobait altuagoa (Iturria: Ordiziako Udaleko Euskara Zerbitzua):



Ezagutza datu horiek, ordea, zaharkitu xamar egon daitezke. Izan ere, azken hamarkada honetan Goerrira iritsi den etorkin kopurua oso handia da, eta etorkin heldu horien ezagutza ez da islatzen datu horietan. Goierri osoan 43.176 biztanle daude. Horietatik 3.982 etorkinak dira eta errumaniarrak dira nagusi, 1.757 baitira Goierri osoan. Etorkinak, beraz, biztanle guztien % 9,22 dira. Ordizian batez bestekotik gora daude (% 12,82) eta Zaldibian beheraxeago (% 8,71).

Etorkin horien seme-alabak euskaraz eskolatzen ari dira, eta Zaldibian, behinik behin, integrazio linguistikoa erabatekoa da. Gurasoek, ordea, gaztelania ikasten dute lehenengo eta gutxi batzuk baino ez dira euskara ulertzeko gai. Pentsa daiteke, beraz, grafikoetako datuek 2010 honetan ez dutela guk azaldutakoa islatzen.



Dena dela, hizkuntza berri horiek agertzea ez luke oztopo izan behar euskararen ezagutzan, eta are, erabileran. Hizkuntza-ukipen egoera hau baliatu beharko genukeela uste du Junyent-ek Argian dioenez:

Junyentek eleaniztasuna proposatzen du hizkuntza gutxituen etorkizuna bermatzeko bidetzat. “Txepetxek argi esan zuen bezala, dualismoa konfliktuz beteta dago”. Bartzelonarrak, hizkuntzak aztertzen daramatzen urteetatik, ondoko ondorioa atera du: “Munduan desagertu diren hizkuntza gehienak hizkuntza handiagoak ordezkatu ditu. Auzoko hizkuntzak ikasi dituzten komunitateetako hizkuntzek aurrera egin dute”. Horregatik uste du katalana –eta berdin euskara– ezin dela bizi gaztelaniari begira. “Hizkuntza berri horiek dira gure etorkizuna. Guk orain ondareztat nola hartzen ditugun, hala biziko gara haiekin gerora”. Etorkinen hizkuntza aberastasunarekin elebitasuna apurtu behar dela dio.

3.4. TRANSKRIBAPEN IRIZPIDEAK

Hauek dira gure lanean transkribapenak egiteko garaian jarraitu ditugun irizpideak:

3.4.1. Forma

- Gaia edo testuinguruaren azalpenak: batuan eta parentesi artean.
- Zerbait entzuten ez bada, [XXX] markatuko dugu.
- H beti agertuko da
- Transkribatu gabeko zatiak honela adieraziko ditugu: (...)

3.4.2. Bestelakoak

- $-n + b > m$: *kaskarrekomat* “kaskarrekoen bat”, *balimazea* “baldin bazara”
- ERE beti bereizita, edozein dela ere forma: *re*, *e* (*oaiñ e*, *Josune re*)
- EZEZKOAK elkartuta idatziko ditugu (*ezto* “ez du”, *ezkea* “ez gara”). Baina aldaketa fonetikorik gabekoak bereizita (*ez gendun*, *ez giñen*).



- ETA kopulatiboa bereizita, edozein delarik ere forma: *a, da, ta, eta* (*Josu ta Katrin, Katrin da ni*). Baina multzoa adierazi nahi duenean, edota menpeko kausalak egiteko partikula denean, marratxoarekin (*amak-eta oi esan tzuen*).
- ADIZKI PERIFRASTIKOAK apostrofearekin idatziko ditugu aldaketa fonetikoren bat baldin bada edo hizkiren bat galdu bada: *esate´o, ezautu´et, itte´o, erretze´izu*. Salbuespenak izango dira: *ustet, ikuset...* (e + det > et)
- N galtzean argi ulertzen bada, bereizita eta beste ezer gabe (*esate gendun, ikuste zan*). Bestela, “n” kortxete artean jarriko dugu (*ju[n] nitzen, i[n] non, iza[n] nitzen*).
- *n + b, p > n* : *inportante, kanpon, ainbeste...* Inoiz ez da euskaraz ingurune horretan “n” ahoskatzen, “m” baizik, baina idazkera batuan horrela erabakita dago eta horri eutsiko diogu.
- OMEN eta bere aldaerak (*men, emen*) bereizita idatziko ditugu: *ikusit men do, etorri emen tzan*.
- BAT zenbatzailea bereizita idatziko dugu: *pare aten...* Salbuespena *majijnat* “makina bat” izango da.
- GABE eta bere aldaerak (*be, pe*) bereizita idatziko ditugu (*etorri be*). Aldaketa fonetikoren bat dagoenean, kortxete artean adieraziko dugu (*gogoi[k] pe, dirui[k] pe*).
- Hitzak elkartzen direnean aldaketa fonetiko dagoenean eta esanahia ulertzea zaila denean, kortxetea jarriko dugu: *gu[k] tauku* “guk daukagu”, *aundi[k] tie* “handiak dira”, *eztai[t] pa* “ez dakit bada”.
- BUSTIDURA adierazi egingo dugu beti *ñ, ll* eta *tt* -ren bidez (*gaiñen, baiño, itteko*).

3.5. AHOZKO JARDUNAREN AZTERKETA

3.5.1. Interjekzioak

Interjekzio asko ageri dira gazteen jardunean, gehienak zuzenean gaztelaniatik hartutakoak: *ya, vale, yasta*

Adibideak:

- *kendu´iazu ya!*



- *Ya, baño es que neska hoi juten da*
- *Ya, baño re bai*
- *Hamasei urte dazkezula ta yasta*
- *Gero hitz eiten deu, bale?*

3.5.2. Diskurtsoa antolatzeako partikulak

Gaztelaniatik hartuak dira hauek ere: *pues, bueno, o sea...*

- *Pues ya bukatu zuten*
- *Pues un poco hermosa está e!*
- *Bueno, espero deu ez eukitzea askoz gehio*
- *Bueno, nik ez tittut idazten*
- *Bueno ba, beinga, goazen*
- *Ta bueno, earki ibili giñen*
- *O sea, danai esaten tzien*
- *Es que flipantea da*
- *O sea ez itea por libre*
- *O sea, ez ibiltzeko jendea*

3.5.3. Irain eta biraoak

Gaztelania baliatzen dute honetarako:

- *Bua, capuyo*
- *Vete a la mierda gilipollas!*
- *Déjame en paz, cabrona!*
- *La ostia!*
- *Ostia, ze ai naiz?*

3.5.4. Morfosintaxia

Orainaldi burutu gabea erabiltzen da geroaldia erabili behar den forma askotan:

- *Gero hitz eiten deu, bale?*
- *Ya bukatzen deu grabaketakin, bale?*



Kausazko perpausak osatzeko *porque* eta *zeba* partikulak erabiltzea, eta *ya que*, *así que* erabiltzea arrazoi bat ematerakoan:

- *Asko bereiztet porque aurreko urten*
- *Leorreta ez, zeba Beasaingokin batea tokatze íe*
- *Ormaiztegia bai, zeba juxtu koinziditze ´o esaminek bukau ta tapa*
- *Gure klaseko batekin dijo gaiñea, así que*
- *Urte bat zaharragok etzittuen hartu, así que*
- *Bai, ezteu ezer galtzen, así que*
- *Azkena sardotegia jun giñenen hogeita hiru urte bota zizkien, así que*

Azalpenak *es que* erabiliz ematea oso arrunta, adibide asko aurkitu ditugu:

- *Es que horrek re bai*
- *Es que beste irakasle batzuk daukete un...*
- *Es que gaiñea eztau ikasi beharra*
- *Es que ez da normala*
- *Es que nik ustet eak ikusten gaittuela*
- *Es que atsalden eze haundik eztau*

Moduzko perpausak *nola* erabiliz osatzen dituzte batzuetan

- *Oaiñ sobrare nola jende gehio hasi dan, krisikin da nola jende gehiok in nahi don karrera*
- *Nola bakin ze giro daun hemendio*
- *Gero ere ba nola dien herri haundigok*
- *Nola jarri dituzten oain aurten*
- *Oain dala urte batzuk nola jarri zuen*

Gaztelaniazko *si* erabiltzea protesta adierazteko:

- *Si aittek esan ziten*
- *Si gero gure umek*
- *Bai, si eskolako gure klaseko batekin dijo gaiñea*



- *Bai, si kapitulok bi aldiz ikusi ´ttut*

Ere partikula oker erabiltzea:

- *Gero ere ba nola dien herri haundigok*
- *Ya, baiño re bai, noiz kontau da ba marrazketa azterketa bat bezela?*
- *Esan zon ez zola entregau ez da re bat, ez da re bat*
- *Nik ustet re bai asko dala segun*

Izan eta egon aditzen adizkiak perpausaren hasieran jartzea

- *Zenden desfaborezittuta*
- *Neon goran*

Bezalako erabili ordez bezala erabiltzea konparazioetan

- *Nik ustet azterketa zala guk iten deuna bezela*

3.5.5. Gramatika-kasuak

Non eta nondik kasuak nahastu egiten dira

- *Nola bakin ze giro daun hemendio*
- *Zaldibikok handik zebiltzen*

Mugagabea ez da erabiltzen behar denean

- *Eztau hainbeste ezberdintasune*

Partitiboa geroz eta gutxiago erabiltzen da

- *Ez dauzket arazok komunikatzeko*
- *Es que gaiñea eztau ikasi beharra*
- *Ez dauzket eunek, ez dauzket eunek ikasteko*

3.5.6. Aditza

Nor-nork paradigma erabili ordez nor-nori-nork erabiltzen

- *Zeba txikigoi ikusita*
- *Es que nei erderaz jartzen baiazu*
- *Es que nik ustet eak ikusten gaittuela guri*
- *Nei horrek harritu ziten / Es que nei harritu in ziten lehengon ikusi nunen*



- *Guri hartzeko oso zaille*
- *Txikitatik ezautzeit*
- *Dedon jarri giñen ta hartu ziunakin jun giñen*
- *Ze gero jun ingo naiz kanpoa ta eztiatzue ikusiko*
- *Kendu íazu ya!*

Hika alokutiboa geroz eta gutxiago erabiltzen da

Grabazioan ez da agertzen hikako adizkirik. Zaldibiako errealitatea ezagututa, ordea, arrazoia zein den argi dago: grabazioan neskak ari dira hizketan. Mutilen artean erabat normala da hika aritzea. Ikusi Ordiziakoek ere zer dioten horri buruz:

Hitz eite´ute eztaikit, askoz, adibidez guk Ordizin gure adiñekok eztaukeu joeraik hika hitz eiteko ta herri hoietan bai hitz eite´ute hika, ta ondo, nik ustet hobeto komunikatzen diela hika zuka baiño, erreztasun gehiokin

Aditzaren aspektu hipotetikoa –go+lehenaldia erabilia egiten dute

- *Holako enpresa baten ondo eongo zan*
- *Moldako ziñen e, Josu!*
- *Zuzenago izango baldin bazan*
- *Nola esango zenun?*

3.5.7. Lexikoa

Anglizismoak oso ohikoak dira

- *E-mail, txateau, pendrive*
- *Conference*
- *Moment*
- *Oh! My god*

Teknizismoak ere bai, teknologia berriei eta ikasketei lotutakoak

- *Pribatizau, etiketau, kontraseñea, konektau,*
- *Ebaluazio saioa, haur hezkuntza*
- *Batxi, gazte, eko, mate, filo*



Gaztelaniazko gazte hizkerako lexikoa mailegatzen dute

- *Nik ustet geroz ta jende frikigoa hartzen duela*
- *Jaleoa montatzea da helburue*
- *Ta deskargatzen da hola, tipiko oian gaiñea telebistan propio jartze ´ittue gaiñea, hoi esajerazioa io da*
- *Afaltzeko ze in behar deu, sinpa?*
- *Es que flipa itte ´zue*
- *Es que azkenen rollo bat da e*
- *Nik ustet bakoitze bere bola jungo ´ala*
- *Azkeneako agobiau itten naiz ni behintzat*
- *Salouen kriston desfasea zeola*
- *Baiño pasada bat e!/ Kriston pillea, pasada bat da!*

Lexikoa baino zabalagoa den arren, atal honetan azalduko ditugu gaztelaniatik hartutako esamoldeak ere:

- *Ai dios!*
- *Entre comillas*
- *Asfixio moment (gaztelaniak ingelesetik hartua, era berean)*
- *Como que no*
- *Que fuerte!*
- *Que asco!*
- *Ya esta!*
- *Entre que*
- *Operación bikini ez gea ai gu itten*
- *Ez gea ezertaz pribau*
- *Aunque sea lo último que haga*
- *Como dios*
- *Manga anchakin zuzenduko zola / con manga ancha*



- *A ver, igoal ez dituzte ulertzen beste hitz asko*
- *Por cierto, igo dola...*
- *Nei, desde luego, imposiblea iruitzen tzait*
- *Ya te digo!*
- *Hombre baietz, a no!*
- *Ze klaro, batxiko guztik moztu iten die / eta justo, klaro, egun hortan derrepente esan zigun*
- *Ta vamos*
- *Te digo yo*
- *Por libre*
- *Así, sin más*
- *Psicopedagogo o no se que*
- *Es que no me lo puedo creer!*
- *Todo o nada*

3.5.8. Hitz ordena eta prosodia

Adibideekin azaltzea zaila den arren Zaldibiako nahiz Ordiziako gazteen euskararen gaztelaniaren prosodiak indar handia du. Hitz ordenak salatzen du maiz eragin hori:

- *Gustatzen tzaiu telebista ikustea*
- *Kentze ízue pilla bat diru*
- *Bialdu zon itea bi*
- *Ai da ikasten haur hezkuntza*

3.5.9. Fonetika

Zenbait hitz gaztelaniako fonetikarekin ahoskatzen dituzte, euskarara aspaldi iritsitakoak izan arren, eta beraz, euskaldun gehienek euskal fonetikara moldatuak erabili arren.

- *Conciertoa, Aizpurua, presenci, residencin, juzgado, concurso*



3.6. IDATZIZKO JARDUNAREN AZTERKETA

Zaldibiako eta Ordiziako gazteen lagunarteko euskara idatzia aztertzeko haiek emandako SMSak, txatetako elkarrizketak, messengerrekoak eta emailak erabili ditugu.

Teknologia horiek guztiek urte gutxi daramatzate gure artean, hamarkada bat gutxi gorabehera, baina idatzizko hizkuntzan duten eragina oso nabarmena da dagoeneko. Aurreko urte, eta are mendeetan idazkerak izan duen garapena baina handiagoa izaten ari da orain. David Crystalak internet eta hizkuntzaren arteko harremana aztertzen dituen lanean honela dio:

Si Internet es una revolución, será probablemente una revolución lingüística... las dimensiones actuales de Internet me han convencido de que estamos al borde de la mayor revolución del lenguaje que haya habido jamás (Crystal, 2001: 8 eta 276)

Berria eta bizia da sareko hizkuntza, eta etengabe eraldatzen da, beraz (Crystal:27). Gainera, sareko erabiltzaile gehienak gazteak dira, eta hortaz, garapen hori etengabea izango dela aurreikus daiteke.

3.6.1. Nolakoa da gazteen euskarazko lagunarteko idazkera?

Gazteen idazkera definitu izan dutenen artean Amonarrizek (2009B) zerrendatutako ezaugarriak aipatuko ditugu guk ere:

- Euskal gazteen kode idatzia ahozko kodetik hurbil dago, ia hitz egiten den bezala idazten da. Ziberhizkera idatzizkoaren eta ahozkoren artean kokatzen da. Gainerako hizkuntzetan ere gauza bera gertatzen da, eta horrek larritu egin ditu hainbat aditu, uste baitute gazteei zuzen idazten ahaztu egingo zaiela. Beste ikuspegi bat dutenak ere badira, ordea, gazteak lagunarteko komunikazioa eta idatzizko komunikazio formala bereizten dituztela uste dutenak, Vigara, esaterako:

Gazteekin bakarrik erabiltzen dute, euren kide jotzen dituztenekin, eta, gehienetan, egoera ez-formaletan eta ia ahozkoetan.(Vigara, 2008)



- Idazkera nahasia da, eta ohikoa izan ohi da euskalkietako, euskara batuko, gaztelaniako eta ingeleseko elementuak aurkitzea, kopuru ezberdinean, noski. Gaztelaniarekin kode alternantzia gertatzen da, baina baita hiztunarena ez den euskalkiekin eta batuko formekin ere.
- Arauaren aurkako transgresioa da idazkera bera. Euskararen eskoletan irakasten den euskara batu edo estandarra da transgresio ekintza horren jomuga.
- Talde nortasuna sendotzeko tresna da.
- Adierazkortasuna bilatu nahi da horrela idatzita. Mezuak biziagoak, arinagoak eta zuzenagoak izan ohi dira idazkera formalean baino.
- Emotikonoak, laburdurak eta letra larriak bereizgarri gisa erabiltzea ohikoa da. Emotikonoak grafia arruntekin sortuak nahiz irudiak izaten dira. Laburdura, berriz, balekoa da komunikazioa oztopatzen ez badu. Eta letra larririk ia erabiltzen ez den idazkera honetan, agertzen diren maiuskula apurrak esan nahi dena nabarmentzeko erabiltzen dira.

3.6.2. Zaldibiako eta Ordiziako gazteen lagunarteko idazkera

Guk bildu dugun corpusa aztertuta ondorio nagusi batera iritsi gara: Euskal Herriko joera nagusiei jarraitzen diete eremu honetako gazteek lagunartean idazten dutenean.

Aurreko atalean zerrendatutako ezaugarri guztiak betetzen dituzte eskura ditugun testuek: hitz egiten duten bezala idazten dute, gaztelania eta ingelesa tartekatzen dira, batuko formarik ez dute ia erabiltzen, haiengana informazio eske jo dugunean gurekin ez dute lagunarteko idazkera hau erabili, adierazkortasuna lortzeko hainbat baliabide dituzte (kode alternantzia, letra larriak...) eta letra larriak eta laburdurak erabiltzen dituzte.

Ezberdintasunak badira, hala ere, idatzitako testuaren formatuaren arabera. Sakelako telefonoetako mezuetan laburdurak askoz ere ohikoagoak dira emailetan baino, adibidez. Eta joera berari eutsiz, emailak arauzko eredutik gertuxeago daudela esan genezake. Beraz, zenbat eta testu laburragoa orduan eta gazte idazkeraren ezaugarri gehiago.

Gure gaiari hertsiki lotuz gero, lagunarteko idatzizko ekoizpenean ahozkoan gertatzen diren kode alternantzia kasu bertsuak jaso ditugu. Aipatu genezake



ingelesa presenteago dagoela idatzizkoan ahozkoan baino, baina darabilten gaiak zerikusia izan dezake, eta beraz, baieztapen hori egiteko gai beraren inguruan hizketan eta idazten jarri beharko genituzke. Idatzizkoan berriz aurkitu ditugu oker erabilitako nor-nori-nork adizkiak, orainaldi burutugabeak, gaztelaniazko esamoldeak, o sea diskurtso antolatzailea, si partikularekin osatutako perpausak, *asi que* erabiliz osatutako kausazko perpausak...

Jasotako testu askotariko zenbait ekarriko ditugu hona orain arte egindako baieztapenak frogatze aldera:

- Kejauko zea, kontrol hortan in genua bialtzeizut. mua!
OTEGII TE KIEROOOOOOOOOOOOOOO! :))) MILA ESKERRRRR! :DDDDDDDD
- otegi nik bi oiek bialtzen dizkiot??? ola daren bezela??
- otegi!!!! ei filoko iruzkin bat edo aurkitzen bazu etxetio... bialdu daikezu :S? ez baukezu edi lasai... alare eskeeeeeerrikaskoo!!! muxuuuuuuuk!! Barkau saus, oain hartu det korreo hau. ustet san nizula ez detela aurkitzen filoko iruzkine. Geroarte!!!!!!!!!!
- EKERRIKASKO!!! Bakit ya faltan botatzeiazula klasen osake bihar esfuertzo bat ingoet ta jun ingo naiz jajajaja weno ba aer euskera beintzet iteeten! Eskerrikasko beize!! muaah!
- Your song, del guapo de Eurovision ikusi det bideoa, hahaha. ke penoso lo de soraya no??? aaaaaajajajajajajajajajaja si chikilicuatre 16. postun geau zan!! ke verguenza tio Jajajajajaja!!!!!! Bai oso guapoa da....pffff. Ta Sorayana....ya se puede apuntar a un grupo de terapia....gajoa.
- Otegi, nere amak frncesea eaman bar dit, siq naizu...4tn bean. Muxu!!! Eskerriksko!! Azalduko nz. Gerart!!
- Academyan maila altunan nau.. ajajajaja azterketa txorrada bat zan.. horregatik izango zan! gramatikako irakaslea osoo ona da eta talkingekoa da super filoo.. ME ENCANTA!! :D bakizu nolakoa naizen
- bñ noiz izango zan partidue sk segun noiz dan ezingo naz jun bñ bestela ni animatzen naz
aio wapixixma
mxk



- epa ba ni nd bizi naiz ta zu zmoz? zmoz azterketak? bueno ba lanbaten juteko asmoa baket asike naibazu nere amak eamango gaittu
- bai azkenen beasaingo tipa batena zan da bila etorri bar do zaldibiko taberna halare mobile beltza zan bñ tapaipe ee jejej
- ustet kanpo migrazioa baino ez nau seguro ze aurreko urten geo praktikon hirina jarri zien da guk zteu ezer in ortaz!!! asike ztait bñ bazpare dena ikasi
- Epa katt Zorionak! joe ya 18 e ke vieja! bueno ba eune ndnd pasa ta opari asko jaso geo eongo ga eskolan aa ta barkau ain goiz Zaltzea sms-a bñ blas de otero ikastea jeki naz da zutaz goatu naz jaja ikustezu ze kontzentratuta naun

3.7. HERRIEN ARTEKO ALDERAKETA

Bi herrietan jasotako adibideak nahasita eta batera ikusiz gero, irakurleak pentsa dezake Zaldibian eta Ordizian kode alternantzia kopuru berean eta kasu bertsuetan gertatzen dela. Baina ez da horrela. Zaldibian jasotako corpusa handiagoa izanik ere Ordizian askoz ere kode alternantzia gehiago atzeman ditugu.

Gainera, kode alternantzia kasu batzuk Ordizian bakarrik jaso ditugu. Hauek, hain zuzen ere:

- Ere partikula oker erabiltzea
- Partitiborik ez erabiltzea hala dagokion kasuetan
- Orainaldi burutugabea erabiltzea geroaldia erabili beharrean
- Bezala erabiltzea bezalako erabili ordez
- Gaztelaniaren hotsak euskarara egokitu gabe erabiltzea hainbat mailegutan
- Mugagabea ez erabiltzea hala dagokionean

Ondorioztatu dezakegu gaztelaniak eragin handia duela bi herrietako gazteen euskarazko jardunean, eta Ordizian handiagoa. Badirudi eragin sakonagoa jasaten ari dela Ordiziako hiztunen gramatika Zaldibiakoena baino. Gorago deskribatutako errealitate soziolinguistikoak eragingo du, noski, hori horrela izan dadin. Hala gertatzen da adinekoen kasuan, eta ikusi dugu gazteengana joz ere ondorio antzekoetara iritsi garela.

Ordiziako euskalgintzako hainbat eragilerekin 2004an egindako mahai-inguru batean ere ikuspegi hori eman zuten han bildutakoek. Horrela zioen parte-hartzaile batek:



Baiño egie da erderazko joera haundie daula. Baiño ez erderazko eztabaida eo elkarrizketak emateko, baizik eta espresiok. Espresiok eta atealdik, geoz ta erderazko gehio daude. (Etxabe & Garmendia: 102)

Dena dela, aipatu beharrekoa da Zaldibiak eta Ordiziak ez dutela bide soziolinguistiko paraleloa egin XX. mendean zehar; alderantziz, Ordizia erabat erdaldun izatetik euskaldunduz joan da ezagutzari dagokionez batez ere. Zaldibian, aldiz, gaztelaniak ez zuen batere presentziarik duela hamarkada batzuk, eta kode alternantzia kasuak geroz eta gehiago dira. Normalizazioaren ikuspegitik Ordizia egoera idealetik urrun badago ere, aurrerapausoak egin dituen komunitatea da hangoa.

4. ONDORIOAK

Aurreko bi ataletan ikusi dugu, ahozko jarduna aztertzerakoan batez ere, Euskal Herriko ezaugarri komun gisa zerrendatu izan diren ezaugarrietako zein betetzen diren Zaldibia eta Ordiziako gazteen diskurtsoan kode alternantziari dagokionez.

Zerrenda horretako zenbait ezaugarri ez ditugu jaso, ordea, bi herrietan egindako grabazioetan. Horretan oinarrituta ezin dezakegu esan, hala ere, ezaugarri horiek ez daudenik. Gure lagina mugatua da, eta auskalo azterketa sakonago batek zer ekarriko lukeen begien aurrera. Esate baterako, hango errealitatea ondo ezagutzen dugunok badakigu *Bat* zenbatzailea gaztelaniak erabiltzen duen bezala erabiltzen dela Zaldibian eta Ordizian (*gose bat dauket!*, *Esaminek bukatzeko gogo bat dauke!*). Dena dela, ergatiboarekin lotutako akatsak, noraino eta nondik kasuak nahastea, noiz eta noiztik nahastea, *egin* galdegai gisa ez erabiltzea, aditz paradigma berriak oso-osorik asmatzea edota gaztelaniaren pareko forma pasiboak sortzea ez dira agertu guk aztertutako corpusean.

Bestalde Euskal Herrian agertu ez eta Goierriin gertatu den kode alternantzia motarik ere ez dugu atzeman. Badirudi, Goierriin berritzaileak baino gainerakoen atzetik doazen hiztun gazteak bizi direla.

Aipamen labur bat egin nahi genuke berrikuntzak aitzakia hartuta Zaldibiako gazteek aipatutako gai baten inguruan. Hiztunek eurek onartzen dute Zaldibiako lagunartean modu batera hitz egiten dutela eta Ordiziako ikaskideekin beste batera, egokitu egiten dutela hizkera solaskidearen arabera. Jakinik ere kalitate gutxiagoko eta gaztelaniaren eragin handiagoko hizkera darabiltela, Ordizia prestigiodunaren aurrean ez dute herrian bezala hitz egiten.



Pentsatzekoa da, hortaz, Ordiziar dagoeneko iritsi diren zenbait berrikuntza Zaldibian ere txertatuko direla denborak aurrera egin ahala, hiztunen arteko hartu-emanak etenik gabea baita.

Kode alternantzia ikertzeko garaian atal garrantzitsua da alternantzia horrek ze funtzio betetzen dituen aztertzea. Hainbat adituk (Gumperz, Chambers, Ibarra eta Galindo, besteak beste) gazte hizkerari oro har eta kode alternantziari berariaz esleitzen dizkioten funtzioak zein diren ikusi dugu lehenago. Gure ikerketa honek baieztatzen du Zaldibiako eta Ordiziako gazteen hizkeran eta idazkeran ere funtzio horiek betetzeko agertzen dela kode alternantzia:

- Adierazkortasuna lortzeko
- Beste batek gaztelaniaz esandakoa jasotzeko
- Umorea eta kutsu ludikoa lortzeko
- Zenbait gauza euskaraz esateko gaitasunik eza gainditzeko.

Bi herrien arteko alderaketa egin dugunean esan dugu Ordizian kode alternantzia nabarmenagoa dela, eta azken funtzio horrek izan dezake zeresana errealitate horretan. Lehen aipatutako mahai-inguru hartan horrela zioten:

Bueno, bata da gaitasunik eza. Eztao gaitasun... jendek eztaukue gaitasunik euskaraz normal-normal aitzeko. Erderaz askoz e errexago eitten do. *Economía lingüística* esaten tzaio. (Etxabe & Garmendia: 106)

Nabarmendu nahiko genuke, era berean, ingelesa ere eremu horietan lekua hartzen ari dela poliki-poliki. Duela urte batzuk pentsaezina zen ingelesezko esaldiak normal-normal agertzea euskarazko diskurtso batean, eta gaur egun, gaztelaniaren oso atzetik bada ere, ingelesa agertzen da funtzio horiek lortzeko asmoz.

Hau guztia ikusita, Goierriko gazteen euskara zertan den badakigu gutxi gorabehera. Gaztelaniaren eragina sakona da, eta gabeziak estaltzeko erabiltzen denez, euskararekin lortzen ez dituzten funtzioak lortzeko, alegia, aurreikusitako geroz eta gehiago hedatuko dituela sustraiak erremediorik jarri ezean.



Gazteek funtzio horiek euskaraz betetzeko baliabideak izan behar dituzte eskura. Bestela, erdalduntze prozesua indartuz joango da eta hizkuntza menperatzaileek hizkuntza gutxitua ordezkatzeko lukete. Gartziak horrela dio ukipenari eta ordezkatzeari buruz:

Oro har, hizkuntzen ezinbesteko eraberritzerako eragile, bultzagarri eta bide-erakusle nagusietakoa da kontaktu hori. Kontaktua estuaren kasuan, hizkuntza bataren berezko moldeetan nahasmenak sor ditzake bestearen eraginak. Eragin guztiz desorekatuaren kasuan, hizkuntza nagusiak *jan* egin dezake menderatua (aurrena desitxuratuz, hurrena desegituratuz eta azkenik deseginez). (Garzia:14-15)

Gaztelania, eta frantsesa Iparraldean, eremu horietan indartuz joanez gero zer gerta litekeen badakigu, hortaz. Ukipenean dauden hizkuntzentzat kode alternantzia naturala eta ona dela diote hainbat adituk, baina hizkuntza gutxituentzat ere bai? Zein da neurria?

Eta azkenik, idatzizko jardunari lotuago, teknologia berriek zer ekarriko diete hizkuntza gutxituei? Gaztelaniarekin eta ingelesarekin kode alternantzia kasuak gehitu egin daitezke, eragina areagotu. Baina Crystalek hauxe dio interneti eta hizkuntza txikiei buruz:

Es el medio ideal para las lenguas minoritarias, dada la relativa economía y facilidad de crear una página web...No me parece que Internet sea la muerte de las lenguas, sino al contrario. (Crystal: 253 eta 276)

Honen ondoren etorriko diren ikerketek erakutsiko dute etorkizunak zer ekarriko dien hizkuntza gutxituei. Guk XXI. mende hasierako argazkia egin dugu Goierrin, gaur gazte direnen euskara zertan den jakiteko gaztelania boteretsuaren itzalean.

5. CORPUSA ETA HURA JASOTZEKO TXANTILOIAK

5.1. PASARTEAK

5.1.1. Zaldibia

Janire (J), Josune (Jo) eta Ane (A) (2010.03.13) eta Karmele (K)

Internet



J: Ni eunero sartze naiz tuentín eo interneten, baiño esamínetan eo hola naunen ez, baiño bestela ohittura dauket eunero sartzeko, argazkik ikustea ta kotilleatzea pixkat.

K: zer da tuenti?

J: Da, zuk perfil bat bezela daukezu zure argazkik eta íotze´ittuzu. Ta jendek e bauke. Ta in deikezu baita txateau ta beste jendekin da hitz eíñ da hola. Komunikatzeko era bat da.

Jo: Komentariok idazte´ittuzu. Bueno, nik eztittut idazten, baiño.

K: Batzui baimena emate´iezu sartzeko?

A: Hoi da. Pribatizau in deikezu, ordun, pribatizatze zunen zuk esate zu ze launei uzte´iezun eta zeni ez. Ta ordun zuk nahi zunak ikuste´ittu zure argazkik ta zuk ikuste´ittuzu bestenak baita pribatizauta balin baukea. Ta ez balimaukea eozeinenak ikusi deizkezu zuk

Jo: Baiño azken bolaran nik aittu´et behintzat, ba launek eta kontraseiñea eman ingo´io ta kriston problemak ai diela atatzén tuentitío.

A: Es que hamaika urteko umek daukea ta berez segun ze argazki eak ezingo littuzkea jarri ta berez nere ustez hoi pixkat kontrolatugo eon beharko litzeke.

J: Bai, ta garai baten eon tzan ohittura baita irakaslei ta argazkik eta atea klasen da hoik jartzeko ta gure eskolan prohibittu in due oain.

Jo: Bai, lehengo urten ya informatikatik ezin tzan sartu tuentín. Esan tzuen Eusko Jaurlaritzan zeoze izan tzala baiño jakin tzazu. Lojikoá da berez kentzea.

K: Ta txateau in al deike bertatik?

J: Bai, oain dala gutxi jarri due, oain dala gutxi, hasieran ezin tzan hoi in baiño gero jarri´ue zea bat eta hor atatzé´zaizu zein daun konektauta ta beaiekin hitz ein deikezu

A: Baiño bueno, txatea´eikezu entre comillas, o sea zure launek dienakin, o sea uzte´iezunakin, ezta txat batea sartu ta eozein ezautu´eikezula. Hitz eitte´zu jakinda zein dan bea, messengerren bezela, izena beak jartze´izu ta ordun bakizu atsaldeako plana ta hola, holako gauzak.

J: Ta deskargatzen da hola, tipiko oian gaiñea telebistan propio jartze´ittue gaiñea, hoi esajerazioa io da

A: ya, ta kentze´izue pila bat diru.

Janire (J), Josune (Jo), Josu (Jos), Katrin (Kat) eta Maddi (M) (2010.04.04)

Jos: Jani, beinga, utzi´tzezu hoik eta hok serbittuko´ittut



J: Ordizin potea in behar du? Mezkla al dezu?

Jo: E, sardoa ona dau e!

J: nere elezioa izan tzan

Jos: Gezurre

J: Nei norbaittek binagrea ekartzen bait

Tori

Ez, hoi modena da

J: A, baiño nei modena gustatzen tzait. Zenbat diru ekarri´zue gutxi gorabehera?

Jos: Berrogeita hamar euro ta Gaztekutsa hutsik

J: Nik Gaztekutxa ez tet ekarri, DNle

M: Nik e ekarri´et DNle, gero nei ez esateko ezin detela sartu

J: Bua, capuyo, ahaztuta neon, que fuerte!

Jos: Azkena sardotegia jun giñenen hogeita hiru urte bota zizkien, así que

J: Earra, Josu. Nei entrenadore berrie etorri zitzatenen fubolea “¿Tu cuantos años tienes, catorce?”

Jos: Vete a la mierda gilipollas!

J: o sea, danai esaten tzien, Amagoiai igoal hogeitaz piko usten tzola, hogeitaz o hola eukiko zittula, ta galdetze´ie nereaz ta “ a, zuri, hamalau-hamabost”, ta ni “eskerrik asko”

Kat: Janire, ni jun nitzen zea, astearten, ez, astizkenen kanpoa afaltzea ta ni erabat emozionauta, juten gea gero pote bat hartzea ta (...) gin tonic bat ta vodka bat eskatzen haste naiz ta “e, ¿me estás tomando el pelo?”, zea, barrakok, “e, no, me pones un gin tonic y un vodka negro con lima?” ta “¿me estás tomando el pelo? Ta atea DNle ta “mira, quieres ver la edad que tengo?”

Jo: Bueno, gu jaten hasiko gea e, katrin

J: On egin!

Josu: ...amen

J: Ama, atzo emozionauta e, gaurko eune allatzeko ta hola, kriston emoziokin

K: Aber, kroketak



J: E, pasa'iazu serbilleta bat mesedez

J: Tintirintirintirin!!!

M: Bizkotxoa

Jos: Oh, my god!

Kat: Oh, my god!

Jos: Ama, honek gizenduko'iu guri... kilok!

Ja: es que flipantea dala, o sea, aste hau damarkit... entre que bai, kanpon afaldu, bai eztakit zer jan zetakit zer han, hasi'eiket

Jos: Operación bikini ez gea ai gu itten, gu ai gea operación ballena

J: operación ballena, karkarkarkar

Jos: Es que Donostin baiño es que flipa itte'zue, ibili gea de grandiosos, hola, zea, pijos de milloneti, baiño pasada bat e, ez gea ezertaz pribau

Kat: Nik erdie nahi det

Jos: Ez, Katrin, todo o nada

J: Katrin, postrea jan, postrea jate'zu-ta. Hoixe jate'zu. Goxoa?

M: earra!

Jos: honek oain nata pixkat

J: Ez, hoi ona eongo litzeke erdin txokolate txurie jarrita

Jos: Ba netzako nata pixkatekin e earki. O un helado de vainilla. Ostia, ze ona!

Jos: Honek txarra euko kriston pillea beteko'la seittun

M: Bai, ni ya bete naiz

J: Bai, bete itte'o, egie da, baiño nik buka bar det, aunque sea lo último que haga, nik tarta pusketa hau, txokolatezkoa, eztet utziko

5.1.2. Ordizia

-Por cierto, igo dola Aintzane Bengoetxea edo tipa horrek, bakizu zein dan Aintzane Bengoetxea?

-Bai



- Ba horrek igo dola gu koron gerenakoa
- zuek bik
- Kendu'iazu mesedez, kendu'iazu ya!
- Etxoin, etxoin, o sea, abesbatzako Cda, ez da broma
- E, ez, Irune, serio ai zea? Hoi ez da normala. Gero hitz eiten deu, bale?
- Bale, es que ez da ezergatik, baiño sartu nitzen atzo Tuentin ta derrepente ikusi nun "argazki berri bat", sartze naiz argazkin eta derrepente ikusi nun koroko argazki hoi eta gero jendea idazten: "tu eres tonta" ez dakit zer.
- Es que ez da normala
- Nik eztet idatzi behar ez uzteagatik nere marka hor, baiño ze amorrazioa
- Ya te digo
- Denak oso gaizki ateratzen gea, ez da iñor salbatzen, ez da iñor salbatzen
- XXX parrez lehertzen
- ez, ez, mala lechea, ez parrez
- Etiketau in behar det
- Ez, ez, irune
- Hombre baietz, a no!
- Ni ateatze naiz kriston gaizki. Gaiñea akordatze naiz egun hortan neukela jarrita honeaiño kuelloko, kriston itsusie, nere lehengusuk pasa zitena, nazkagarrie, eta justo, klaro, egun hortan derrepente esan zigun atera behar genula argazkie
- Zenden desfaborezittuta, flekillo horrekin
- Ai ama, ni okerrago nau, gorriz jantzita, gorriz, goitik behera
- Es que e zon abixau, barkau, e zon abixau
- Nei berdin zait hoi, baiño es que iotzea argazki hoi neska hoi ez baldin bada ateatzen argazkin

- Ze, asteburu hontan jungo gea Beasaiña, ez?
- Zuek



- E'zea jun behar? Juun, Maitane, gutxiñez eun baten, astelehena jai da
- Juten banaiz gero gauen ez det ezer in behar, ta ez nau hortako. Ez dauzket eunek, ez dauzket eunek ikasteko. Si aittek esan ziten "ze, jungo zea Beasaiña, ez?"
- Baiño zuk zer daukezu, geografia ta lengua, ez?
- Si, oaingoz
- Bueno, espero deu ez eukitzea askoz gehio
- Lau falta zaizkit e! Ingles, arte, eko ta
- Arte ez dezu suspenditu, imposiblea da arte suspenditzea
- Enterau zea Gorkak zuzendu behar ditula azterketak, ez? Ta ez da broma
- Ta zeba zuzendu behar ditu beak?
- Ba ez dakit, gu atzo enterau giñen
- Te digo yo nere azterketa gaizki daula
- Ba nik espero det aprobatzea. Nik ya kontatzen non Korok zuzenduko zola con manga ancha, ta ya kontatze nun ba...



5.2. HIZTUNAREN FITXA

HIZTUNAREN FITXA

Izen-deiturak: _____

Adina: _____

Herria: _____

Zure ikasketak: _____

Gurasoak euskaldunak al dira? Ama bai ez Aita bai ez

HIZKUNTZA-OHITURAK

Etxean ze hizkuntzatan hitz egiten duzu?

Euskaraz Gaztelaniaz Bietan Beste hizkuntza bat(zu)etan

Lagunartean ze hizkuntzatan hitz egiten duzu?

Euskaraz Gaztelaniaz Bietan Beste hizkuntza bat(zu)etan

Eskolan ze hizkuntzatan hitz egiten duzu?

Euskaraz Gaztelaniaz Bietan Beste hizkuntza bat(zu)etan

Ze hizkuntzatakoko musika entzuten duzu?

Euskaraz Gaztelaniaz Bietan Beste hizkuntza bat(zu)etan

Telebista ze hizkuntzatan ikusten duzu?

Euskaraz Gaztelaniaz Bietan Beste hizkuntza bat(zu)etan

Liburuak edo aldizkariak ze hizkuntzatan irakurtzen dituzu?

Euskaraz Gaztelaniaz Bietan Beste hizkuntza bat(zu)etan

Saio honi buruz zerbait esan nahi al duzu?



5.3. GALDETEGI EREDUA

GALDETEGI EREDUA

Hizketarako gaiak

- Denok eskola berera joaten al zarete?
- Zer egiten duzue egun arrunt batean? (kirola, hizkuntzak, musika...)
- Eta asteburuetan?
- Nongo jaietara joaten zarete? Zergatik? Ordutegia ezartzen al dizuete etxean? Nongo jendea ezagutzen duzue jaietan? Asko ligatzen al da?
- Nongo jendea gustatzen zaizue? Eta nongoa ez? Zergatik?

- Ze zaletasun dituzue?
- Teknologia berriak gustatzen al zaizkizue? Zein erabiltzen dituzue?
- Eta TB? Zer ikusten duzue telebistan? Zergatik?

- Udarako ze plan dituzue?
- Eta datorren ikasturterako?
- Eta etorkizunean zertan aritzea gustatuko litzaizueke?

Gaztelaniaz aritzeko

Tarte labur batez pentsatuko dugu Madrilera joan garela asteburu pasa, eta hango koadrila batekin elkartu garela taberna batean. Irudika dezagun elkarrizketa. Aurkeztu zuen buruak, esan nongoak zareten, zuen herria nolakoa den... eta egin planak hurrengo egunerako.

Hausnarketarako gaiak

- Gazteen eta helduen arteko euskararen artean alderik nabaritzen al duzue?
- Zaldibia/Ordizia eta inguruko herrien artean alderik nabaritzen al duzue hizkuntzari dagokionez, bai erabileran, bai kalitatean?
- Zer moduzkoa uste duzue dela zuen euskara? Ingurukoekin konparatuta, telebistakoarekin, guraso edo aiton-amonenarekin...
- Kontziente al zarete gaztelaniak gure euskarazko jardunean duen presentziatz? Asko? Non? Zergatik? Zertarako?



6. BIBLIOGRAFIA

- AMONARRIZ, K., 2002, "Euskara zuzenena erabiltzeagatik, batere komunikatiboa ez den hizkera bat erabiltzen da", *BAT* 42, 119-126
- _____, 2009, *Gazteen euskara erabilera: hizkuntza kalitatea*, Hizneteko ikasgaia
- _____, 2009B, "XXI. mendeko euskaldunak: "Nola aldatu(ko) diren gauzak, kamarada!", Mendebalde Kultura Alkarteko Jardunaldiak, 113-141
- APALAUZA, Amaia (2005), *Hizkuntza-aldaketa Goldarazko hiztun-erkidegoan*, lan argitaragabea
- CASAÑAS, Domingo Ivan, "Spanish and code-switching", *American Chronicle*, 2006
- CRYSTAL, David (2001), *El lenguaje e Internet*, Cambridge, University Press: Cambridge
- DORIAN, Nancy (1989) *Investigating obsolescence*, Cambridge, University Press: Cambridge
- ERRAMUN OSA eta XABIER AIERDI, 2009, "Inmigrazio berria, hizkuntza arazo berririk?", Euskaltzaindiako web orria
- ESNAOLA, I., 1997, "Gazte euskaldunen lagun arteko hizkera hemen eta orain zertan den ulertzeko zenbait argibide", *BAT* 24, 63-75
- _____, 1998, "Gazteen hizkera aztertzetik HEArako zenbait irakaspide", *Ele* 18, 103-115.
- ETXABE, Amets, *Kode-alternantzia lagunarteko gazte-hizkeran*, Hizneteko sakontze egitasmoa, (2005)
- ETXABE, K. eta GARMENDIA, L. (2004) *Ordiziako euskara: garai bateko bizimodua eta gaurko hizkuntza-egoera*, Ordizia, Ordiziako Udala
- ETXEBARRIA, Maitena, "Bilingüismo y code-switching en el País Vasco", *Las lenguas en la Europa comunitaria II. Las lenguas de minorías* 55-7 or.



- ETXEBARRIA, Maitena; “Español y Euskera en Contacto”, Lingüística en la red, Euskal Herriko Unibertsitatea, 2003. (http://www.linred.es/numero1_articulo_3.htm)
- GALINDO SOLÉ, Mireia (2008) *Les llengües en joc, el joc entre llengües*, Lleida, Pagès editors.
- GARMENDIA, Larraitz (2001), *Hizkuntza aldakortasuna Zaldibiako euskarari: ikuspegi soziolinguistikoa*, lan argitargabea
- GARZIA, Juan (2005), *Kalko okerrak*, Gasteiz, Eusko Jaurlaritza
- IBARRA, Orreaga, 1997, “Euskararen eraginaren aztarnak Erroibarko gaurko hizketan”, *Oihenart* 15, 161-222
- _____ 2006, "Hiru hizkuntzaren arteko ukipena. Frantsesa, gaztelania, euskara, Piriniotako ibar batean", *Oihenart* 21, 179-193.
- _____ 2008, "Apuntes sobre interferencia castellano-vasca en el lenguaje juvenil actual. Léxico, calcos y transferencia lingüística", *Oihenart* 23, 219-240.
- _____, 2009, “Gazte-hizkerari buruzko ohar batzuk”, *Euskonews* 498 (<http://www.euskonews.com/0498zbk/gaia49804eu.html>)
- IRANTZU EPELDE eta BERNARD OYHARÇABAL (2009) “Code switching en las variedades orientales del vasco”, IKER – UMR 5478 Basque Text and Language Study Center, Baiona
- JUNYENT, Carme, “Hizkuntzen bizitza eta heriotza”, *Bat* 19, zk, 37-48. orr, 1996
- _____, Argia astekariko elkarrizketa, 2.144 zk., 2008
- LEZETA, M. eta SAN MARTIN, E., 1991 *Giro urbanoko gazteak eta euskara. Deba bailarako gazteen iritziak gazteek interpretatuta*, Bilbo, Udako euskal Unibertsitatea
- MUÑOA, Inma; “Zergatik eta zertarako erabiltzen ditugu euskara eta gaztelera solasaldi berean? Kode-aldaketaren funtzio pragmatikoak”, *Bat* 42. zk, 53-63. orr; 2002.
- _____, Pragmatic functions of code-switching among basque-spanish bilinguals, *Actas do I Simposio International sobre o Bilingüismo*, 528-541, XXXX



- MOYER, Melissa, 1992, Analysis os code-switching in Gibraltar, Universitat Autónoma de Barcelona, Doktorego tesia
- RODRÍGUEZ, Félix (coord.), (2002) *El lenguaje de los jóvenes*, Barcelona, Ariel social
- RULL, Xavier, *Els estrangerismes del catalá*, URV publicacions, 2008
- SCHMIDT, Annette. (1985). *Young people's Dyirbal. An example of language death from Australia*, Cambridge, University Press: Cambridge
- VIGARA, Ana Maria, Consumer aldizkariko elkarrizketa, 2008
- WEINREICH, Uriel (1996) [1953] *Llengües en contacte*, Alzira, Edicions Bromera. Argia: Kike, Zuazo, Larrinaga, Klean hankamotz
- Argia: zmoz, 2ar nn geatk ga?
- Caduca hoy bloga
- <http://www.soziolinguistika.org/gazteak>
- <http://www.ucm.es/info/circulo/no5/dominguez.htm>
- <http://privatewww.essex.ac.uk/~patrickp/index.htm> (alternantzia adibideak)
- <http://grammar.about.com/od/fh/g/Hinglish.htm> (indua eta ingelesa)
- <http://www.goierra.org/eu/>
- <http://www.soziolinguistika.org/edb/>



7. ERANSKINAK

Ikerketa lan honen helburua ez den arren, grabaketak baliatu ditugu gazte hauek euren euskararen inguruan zer pentsatzen duten jakiteko. Tartean, nola ez, gaztelaniak euren euskararen duen eragina. Horregatik, interesgarria iruditu zaigu testu transkribatu hauek eranskin gisa gehitzea.

7.1. HIZKUNTZARI BURUZKO GALDERAK (ZALDIBIA)

Adinaren arabera

Jo: Bai, azkenen guk joera dakeu baita ingleseko hitz berrik emeille eo mesengerra esate zunen eta hoi zaharragok eztue esaten

Inguruko herriak

Jo: Baai, ta gaiñea askotan notatzen deu ean arten, bueno, ean arten askotan erderaz ingo due, baiño ean arten erabiltzen duen euskera ta gero guri hitz eitteko erabiltzen duena diferente[k]´iela

Ta guk e askotan nik e gauza bat era baten esango´iot baiño igoal Ordiziko bati beste era batea esango´iot. Euskera batua gehio sartze´zu. Azkenen notatze´a “jo, nola ai zaió esaten?”

A: Ya, zuk hitze itte zunen ustet etzeala enteatzan, baiño beste bat aldamenen baldin baukezu “jo, hau nola ai da hizketan?”

J: Jo, geo nei pasatzen tzat batzutan, askotan erderaz hasten tzaizu hitz eitten ta zuk nahi gabe erderaz erantzute´iozu ta esate´zu “ostia, ze ai naiz?” ta gero euskeraz erantzute´iozu bigarregon, baiño hasieran esate´izu erderaz ta zuk erderaz botatze´iozu

A: Nik askotan ittet igoal erderaz hasi ta igoal eztakit hitz bat ta saltau euskeraz, hasten naiz erderaz ta euskeraz seittu, es que ezpakit erderaz, aizu, ba nik euskeraz dakit, asko sentitzet.

Jo: Baii!! Caballoa ta serpientea ta. Batek ahorcadon jarri zon hitze ta serpiente zan ta “aber Unai, hoi erderaz da” ta a bat jarri zion bukaeran da “hola gustoa?”

Beraien euskararen kalitatea

A: Ona, baiño erderazko zeakin. Ingurukona baiño hobea



Jo: Aurreko baten "konejue" esan tzon irakasle batek, baserrin konejue zeukela, ta Ordiziko guztik parrez hasi zien ta aber nola esango zon konejue, untxie esan beharko zola. Ta irakaslea Lazkaukoa da.

7.2. HIZKUNTZARI BURUZKO GALDERAK (ORDIZIA)

Adinaren arabera

-Uste deu badaula ezberdintasune. Bueno nere iritziz behintzat badau, ze guraso askok euskaldun berrik die ta ordun erabiltze´uten euskera batzutan batuai gehio hurbiltzen zaio gurei baiño

-Iguar da gehio daula desberdintasune heldun arten berez euskera etxen ikasi dutenan arten ta ikasi behar izaten dutenak eskolan o euskaltegitan o, hor kriston diferentzik dare

-Étxen bastante nahastuta hitz eiten do, o sea ez do hitz eiten aitonakin hitz eiten don bezela gurekin

-Nik ustet asko iten dola segun ze herrikin konparatzen dezun

Inguruko herriak (Zaldibia)

-Hitz eite´ute eztakit, askoz, adibidez guk Ordizin gure adiñekok eztaukeu joeraik hika hitz eiteko ta herri hoietan bai hitz eite´ute hika, ta ondo, nik ustet hobeto komunikatzen diela hika zuka baiño, erreztasun gehiokin.

-Beasaingoa igoal ez baiño Zaldibikona hobea da, ze prestamo gutxigo dauzkete, purogoa da, ta guk ite´itugun akats asko, badakizkigu ite´itugula, ba iguar ikusi dizut eta holakok, ba holakok haiek ez dituzte iten.

Beraien euskararen kalitatea

-Guk badakigu gaizki ai geala hitz eiten, baiño berdin zaigu, ez diogu garrantzik ematen

-Gero ere ba nola dien herri haundigok... eztauke beti izan barra ezta, baiño gertatzen da

-Konparatzen badezu ikasten ai dan batenakin, bada onak

-Ez dauzket arazok komunikatzeko, baiño akats pilla bat ite´itut



-Ez dakit dan erreztasun gehio edo

-Gure joera zuzenago izango baldin bazan, o sea, gure joera izango zan euskera batuaka jutea, etzan izango hain naturala

Gaztelaniaren eragina

-Nik kristona notatzen det

-Askotan ibiltze´itugun egiturak igoal die kalkok edo

-Es que baita pasatzen da nire ustez ez dakizkigula benetan euskerazko egiturak, ta ordun iruitze zaigu ez darella ta nola ez daren gaztelerazkok erabiltze´itugu

-Bai, edo igoal aldrebes baita e, pasatzen dana da gu ez geala konturatzen

-Ya, e baita bizi gea beti, hoi irakasle batek, inglesekok nei beti esate ziten, beai, beak hoi ezola ulertzen, ze han, bea Manchesterkoa zan ta han Inglaterran ez do eduki beak, hizkuntza bat eduki do beti, ordun esan do iñoiz etzaiola gertau hemen ikusten dona. Ba, derrepente ai zeala euskeraz itten ta soltatzen dezula esaldi bat erderaz eo, hoi arraroa itten zaiola. Baino egie da, gu nola beti bizi izan gean bi hizkuntzakin ba normala iruitze zaigu batetik bestea jutea ta momentun errezena etortzen zaiguna ia pentsau gabe, o sea jarri partez pentsatzen euskeraz nola esango zenun eo alderantziz, ya zuzenen lehenengoa okurritzen zaizuna esate´zu.

-Ta baita komunikabidek nere ustez ite´utela, e, ze kanta gehienak dauzkeunak erderaz die ta esloganak ta holako txorradak